# Unveiling the Ecosystem Services of Insectivorous Bats through a Comprehensive Approach: Trophic Ecology, Methodology and Study Design

# *Saguzar Intsektiboroen Zerbitzu Ekosistemikoak argitara ekartzeko Hurbilketa Integrala: Ekologia Trofikoa, Metodologia eta Ikerketa Diseinua*

Unai Baroja Ibáñez de Maeztu

PhD thesis

Leioa, 2021

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

*Cover photo made by Adrià López-Baucells and Oriol Massana.*

*Back cover photo by Jose Mena*

Maiteri

*“Gerturatu ahala konturatzen gara zeinen urrun gauden errealitatetik”*

# Unveiling the Ecosystem Services of Insectivorous Bats through a comprehensive approach:
## Trophic Ecology, Methodology and Study Design

# Saguzar Intsektiboroen Zerbitzu Ekosistemikoak argitara ekartzeko hurbilketa integrala:
## Ekologia Trofikoa, Metodologia eta Ikerketa Diseinua

A thesis submitted by Unai Baroja Ibáñez de Maeztu to the University of the Basque Country for the degree of Doctor of Philosophy, under the supervision of Dr. Inazio Garin Atorrasagasti.

Leioa, Basque Country, 2021

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# Edukien taula-Table of contents

## Argitalpenak - Publications

Article 1.

Baroja, U., Garin, I., Aihartza, J., Arrizabalaga-Escudero, A., Vallejo, N., Aldasoro, M., & Goiti, U. (2019). Pest consumption in a vineyard system by the lesser horseshoe bat (*Rhinolophus hipposideros*). *PLoS One*, 14(7), e0219265.

Article 2.

Baroja, U., Garin, I., Vallejo, N., Aihartza, J., Rebelo, H., & Goiti, U. (2021). Bats actively track and prey on grape pest populations. *Ecological Indicators*, 126, 107718.

Article 3.

Baroja, U., Garin, I., Vallejo, N., Caro, A., Ibáñez, C., Basso, A., Goiti, U. Molecular assays to reliably detect and quantify predation on a forest pest in bats faeces. *Scientific Reports. Under review.*

## Kolaborazioak – Collaborations

Aldasoro, M., Garin, I., Vallejo, N., Baroja, U., Arrizabalaga-Escudero, A., Goiti, U., & Aihartza, J. (2019). Gaining ecological insight on dietary allocation among horseshoe bats through molecular primer combination. *PLoS One*, 14(7), e0220081.

Vallejo, N., Aihartza, J., Goiti, U., Arrizabalaga-Escudero, A., Flaquer, C., Puig, X., ... & Garin, I. (2019). The diet of the notch-eared bat (*Myotis emarginatus*) across the Iberian Peninsula analysed by amplicon metabarcoding. *Hystrix, the Italian Journal of Mammalogy*, 30(1), 59-64.

## Kongresuak – Conferences

Baroja, U., Garin I., Goiti, U. & Aihartza J. (2016). *Respuesta de la actividad de los quirópteros a los cambios de la polilla de la vid (lobesia botrana) en dos viñedos del norte de la península ibérica: estudio preliminar.* SECEMU IV, Vairão [poster].

Baroja, U., Garin I., Goiti, U. & Aihartza J. (2017). *Response of bat activity to changes in a vineyard moth pest*. 14th EBRS, Donostia [poster].

Baroja, U., Garin I., Goiti, U. & Aihartza J. (2018). *Bats take advantage of numerous pest arthropods in vineyard systems: a metabarcoding approach*. IBAGRECO I, Évora. [oral communication].

Baroja, U., Garin I., Goiti, U. & Aihartza J. (2018). *Bakar bat askoren ehizan*. Natur Zientzien III. Topaketa, Gasteiz (awarded for the best poster) [poster].

Baroja, U., Garin I., Vallejo N., Aldasoro M., Goiti, U. & Aihartza J. (2019). *Saguzarren izurriekiko zaletasuna mahasti sistema batean: kontrol biologikorako oinarrizko hastapenak*. IkerGazte Ikertzaile Euskaldunen Kongresua, Baiona [oral communication].

Baroja, U., Garin I., Vallejo N., Aldasoro M., Goiti, U. & Aihartza J. (2019). *Pest Consumption in a Vineyard System by the lesser horseshoe bat*. 18th IBRC, Phuket [oral communication].

Baroja, U., Garin I., Vallejo N., Aldasoro M., Goiti, U. & Aihartza J. (2019). *Let's play tag! Bats actively track and prey on grape pest populations*. 15th EBRS, Turku [oral communication].

Baroja, U., Garin I., Vallejo N., Aldasoro M., Goiti, U. & Aihartza J. (2019). *Rapid, robust and reliable: a molecular assay for the quantification of the pine processionary moth in bat faeces*. 15th EBRS, Turku [poster].

# Dibulgazioa-Scientific dissemination

## Artikuluak – Articles

Baroja, U. (2019). "Zer dago afaltzeko?" Izurriak saguzarren menuan. *Elhuyar Zientzia eta Teknologia*, 335, 64-68.

## Irratia – Radio

Hiri Gorrian (Euskadi Irratia) – 2018/10/31

Mezularia (Euskadi Irratia) – 2019/10/25

Lau Haizetara (Bizkaia Irratia) – 2019/10/30

Egunon Bizkaia Magazine (Radio Popular) - 2019/10/30

La Casa de la Palabra (Radio Euskadi) - 2019/11/08

# Esker onak – Acknowledgments

Tesia bizitzako sentipen gazi-gozoz eta gorabeherez jositako garaia izan da, erabat. Hala ere, asko izan dira bidean lagundu didatenak, animatu, lagundu, sinistu eta baita lana konstruktiboki kritikatu dutenak ere, zuei, denei, eskerrik asko.

Hasteko, eskerrak eman nahiko nizkioke nire zuzendari izan den Inaziori, urte hauetan zehar irakatsitakoagatik eta ezin ahaztu estatistika eta modelizazioan erakutsitako grina, never give up!. Noski, Joxerra eta Urtziri landa lanean erakutsitakoagatik eta eskatu izan dudanean eskeinitako laguntzagatik. Ezin ahaztu lan taldeko *saguzarrologo* guztiak, gaur egun jarraitzen dutenak eta jada ez daudenak, eskerrik asko Lide, Aitor, Ane, Nerea eta Mireni, baita zuri ere Amaiur, atsedenaldiak eta bazkalorduak atseginagoak egiteagatik eta momentu latz horietan lasaitzeagatik. Eskerrik asko laginketetan etorritako guztiei, Ibarra, Itxaso, Egoitz (batez ere 7 orduz gidatzen egon eta ez lokartzeagatik) eta arrebari ere. Ana Diez Navajas esker mila izurrien bilketan egindako lanagatik. Gracias Elena por transmitirme toda tu pasión hacia el estudio de los quirópteros y por todos aquellos muestreos y “Bat Nights”.

Ezin ahaztu saguzarren gorotzak biltzea posible egin duten guztiak, eskerrik asko zuei ere, saguzar koloniak zeuden lekuetara sartzen uzteagatik, zuen parte-hartzea eta aldartea garrantzitsua izan da prozesu honetan. Gracias Carlos por enviarme tantas muestras, y a ti Juanele, por aquellas conversaciones sobre metabarcoding por e-mail, todavía no hemos tenido ocasión de hablar en condiciones…

Genetikan adituei, Irati eta Irantzuri, eskerrak eman nahiko nizkizueke zuen ezagutza transmititzeagatik, gomendioengatik, inbertitu duzuen denboragatik eta egindako lan guztiagatik. Amaia milesker egindako lan finagatik eta laginketetan pasa ditugun une horiengatik. Thank you to Andrea Basso for your advice on primer designing and your

collaboration. Dar gracias a Gonzalo por su colaboración y sus clases magistrales de estadística.

Gostaria de agradecer a Hugo e Vanessa por tudo o que pude aprender convosco durante a minha estadia no Porto e, claro, por me terem convidado para os vossos jantares, muito obrigado! Muchas gracias a Adrià Lopez-Baucells, Oriol Massana y Jose Mena por dejarme utilizar vuestras fotos en la tesis.

Eskerrik asko lagunei, lana, lana dela gogoratzeagatik eta eskainitako uneengatik, indarrak emateagatik eta trago batzuekin gauzak beste ikuspuntu bat dutela gogoratzeagatik. Zuek barik zail samarra izango litzateke.

Nola ez, familiari, eskainitako laguntzagatik eta sinisten laguntzeagatik, benetan eskerrik asko.

Azkenik, Maiteri. Urte hauetan guztietan zehar eman didazunagatik, egunerokotasunean bidea errazteagatik, bizi izan dugunagatik eta bizitzeke geratzen zaigunagatik.

*I am grateful to the following organizations which have funded my thesis: the Spanish Ministry of Economy and Competitiveness and the European Regional Development Fund (CGL-2015-69069P), as well as the Government of the Basque Country (IT754-13 and IT1163-19). This thesis was supported by a predoctoral grant of the Basque Government UB (PRE_2016_2_0186)*

## Laburpena

Artropodo fitofagoek nekazal ekoizpenean kalte oso larriak eragiten dituzte urtero eta izurrite hauen kontra modu jasangarrian aurre egiteko bideen artean eragile biologikoak proposatu izan dira. Saguzar intsektiboroak, haien dieta ohiturak direla eta, artropodoen harrapakari amorratuak dira, gau bakar batean beraien gorputz masa bezainbeste intsektu jan ditzaketelarik. Oraintsu arte ordea, ezinezkoa izan zaigu saguzarren dieta osatzen duten espezieen zerrenda ezagutzea, baina, azken hamarkadan teknika molekularren aurrerapenei esker, saguzarrek izurriteen dinamikan eduki dezaketen garrantzia agerian geratu da. Hala ere, badira oraindik ere bete beharreko hutsune ugari.

Tesi honetan saguzar eta izurrien arteko elkarrekintzak aztertu dira, horretarako hurbilketa integral bat burutu delarik: saguzarren ekologia trofikoa, izurrien sakabanaketa-ereduak, modelizazio espazio-tenporala eta izurrien detekzio eta kuantifikaziorako metodologia molekular ezberdinen konparaketa burutu da. Testuinguru honetan, tesiaren helburu orokorra izan da saguzar-intsektiboroek mahastietan eskaintzen dituzten zerbitzu-ekosistemikoak hobeto ulertzea eta teknika molekular ezberdinek saguzarren gorotzetan izurrien jarraipenerako duten eginkizuna aztertzea. Horretarako, hurrengo galderei erantzuten saiatu gara: batetik, zein den saguzarrek izurrien erregulatzaile gisa duten ahalmena eta zein izurri-espezie kontsumitzen dituzten; ea saguzarrek mahastietako izurrien populazioak jarraitu eta ustiatzen dituzten; saguzarrek denboran zehar ematen diren izurrien gorabeherekiko erantzuten duten; zein metodo molekular den egokiagoa helburu diren izurrien detekziorako, metabarcoding edo PCR metodoak eta azkenik, qPCR-a metodo aski sendoa eta fidagarria ote den pinu-beldarra *Thaumetopoea pityocampa* saguzarren gorotzetan kuantifikatzeko. Oro har, emaitzek aditzera ematen dute saguzarrek kultibo oso ezberdinetako izurriak kontsumitzeko ahalmena

dutela. Horrez gain, izurrien garai oparoenetan saguzarren aktibitatea altuena izateaz gain, izurrien agerpen maiztasunak saguzarren dietan ere garaienak izan ziren, nahiz eta espezie guztiek ez zuten maila berean jokatu. Gainera, bazka-gremio ezberdinetako saguzarrek positiboki erantzun zuten izurrien gorabeherekiko, saguzar-espezie ezberdinek, sinergikoki jokatuz, izurriak aire-espazioko maila ezberdinetan ustiatzeko ahalmena dutela jakinaraziz. Azkenik, hurbilketa molekularraren hautaketa (metabarcoding, cPCR edo qPCR) ikerketa-galderaren eta metodo bakoitzak dituen abantaila eta desabantailen arabera erabaki behar dela ondoriozta dezakegu.

## Summary

Herbivorous arthropods cause immense damage in crop production annually, and the use of biological agents has been lately proposed to counteract their adverse effects in a sustainable way. Owing to their dietary habits, insectivorous bats are considered among the most voracious suppressors of arthropod pests, in fact daily consumption of arthropods can reach values around 100% of the bat body mass amounting to thousands of insects. The advent of innovative molecular techniques in the last decade has revealed the importance of bats in pest dynamics. Yet, there are still a number of knowledge gaps.

In this thesis I studied the interaction between bats and pests, for which a multidisciplinary approach was carried out, including trophic ecology of bats, distribution patterns of pests, spatio-temporal modeling and the development and comparison of different molecular assays for pest detection and quantification purposes. In this context, the overall aim of the thesis was to better understand the ecosystem services of bats as pest suppressors and to empirically evaluate the performance of different molecular techniques (metabarcoding, cPCR and qPCR) for pest monitoring in bats' faeces. We therefore tried to answer the following research questions: which is the potential of bats as pest regulators and what pest species they consume? do bats track and exploit pest populations? do bats respond to pest abundances across the season? which molecular method is more suitable for target pest detection? Metabarcoding or PCR methods, and finally, is qPCR a robust and reliable method to quantify the pine processionary moth *Thaumetopoea pityocampa* in bats faeces?

Overall, the results imply that bats act as a suppressor of a wide array of agricultural pests. Further, during pest major irruptions, we found the highest bat activity levels and frequencies of grape pests in the diet of bats,

although not all bat species contributed equally to pest suppression. Bats of different foraging guilds positively responded to pest abundances, indicating distinct bat species may synergistically play a role at suppressing agricultural pests at broad scales of the aerospace.

Last but not least, deciding on which molecular approach to use (metabarcoding, cPCR or qPCR) depends on the research question and the advantages and disadvantages associated with each assay.

# Sarrera orokorra

## Izurriak eszenatoki Antropogenikoan: Mundu mailako kezka

Gain-populazioak, elikagaien segurtasun ezak eta nekazaritza intentsiborako joerak bortizki eragiten dute mundu-mailako iraunkortasunaren lorpenean. Azken urteetako biztanleria-hazkundearen eta baliabideen gehiegizko kontsumoaren ondorioz, elikaduren produkzio-eskariei aurre egitea erronka handia bihurtu da. 2050 urterako, mundu-mailako giza biztanleria 10 mila milioi pertsonara iritsiko dela estimatzen da (UNDESA, 2017), eta horrek erronka gehigarriak ekarriko ditu: besteen artean, uzta emendatzeko zailtasunak (%60-110ko hazkuntza 2050erako, Pardey ***et al.***, 2014), era berean epe luzerako jasangarritasuna eta elikadura-segurtasuna bermatuz. Gaur egungo elikaduraren eskari handiak bat egin behar du ingurumen-inpaktuko politikekin; izan ere, oraindik nekazaritza intentsiboari eutsiz, gero eta habitat natural gehiago suntsitzen ari dira nekazal eremuak esanguratsuki emendatuz, horrek dakartzan paisaiaren sinplifikazioari erreparatu barik. Halaber, nekazaritzako izurrite kontsideratzen diren intsektu askok gogor astintzen dituzte munduko toki ezberdinetako laborantzak, jasotako uzta gutxituz, produkzio-kostuak emendatuz eta elikaduraren segurtasuna kolokan jarriz (Paini eta kideak, 2016; Savary eta kideak, 2019). Artropodoek bakarrik, urtero 550 bilioi dolar inguruko galera eragiten dute nekazaritzan (Paini eta kideak, 2016), baina badirudi, klimaren-aldaketaren ondorioz, kalteak are gehiago okertzeko joera izango dutela (Deutsch eta kideak, 2018). Oro har, tenperaturen igoeren ondorioz, handitu egiten da izurrite diren artropodoen tasa metabolikoa (hau da, elikatze tasaren emendioa), eta baita populazio-hazkundea ere. Hori horrela, luzatu ohi da izurrien bizi zikloaren fase aktiboa, urteko belaunaldi kopurua emendatuz eta nekazaritza-kalteak areagotuz (Dillon eta kideak, 2010; Forrest, 2016). Hori gutxi balitz, globalizazioak biziagotu egiten du espezie inbaditzaileen mundu-mailako hedapena eta nekazal-gune berrien kolonizazioa (Perrings eta kideak, 2005). Ikusita datozen urteotan izurrien presioak eta kostu ekonomikoek gora egingo dutela, baita, historikoki erabilitako ohiko kontrol-metodoek ingurugiroan duten eragina kontuan hartuta (neurri fisiko, kimiko eta biologikoen bidez, Thacker, 2002), nekazariek konponbide iraunkor eta eraginkorragoak bilatzera ekin diote; adibidez, eragile biologikoek izurrien ustiatzaile gisa eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemikoez baliatuz.

## Kontrol biologikoa: Epe luzerako estrategia jasangarrien bila

*"Organismo bizidunen erabilera izurri zehatzen populazio dentsitatean eragin edo suntsitzeko, haren kalteak kultiboetan murrizteko"* (Eilenberg eta kideak, 2001) definizioz ezaguna, kontrol biologikoa izurrien kontrako borrokan balio handiko alternatiba eraginkortzat jotzen da, kontuan izanik datozen urteotan "nekazaritza jasangarriari" bidea zabaldu behar diogula. Metodo biologikoak, gero eta indar handiagoa ari dira hartzen, hurrengo arrazoiak direla medio: 1) organismo inbaditzaileak hiltzeko duten ahalmena, 2) ingurumenarekin arduratsua den kontrol sistema bat da, 3) ezarpen kostuak ez dira altuak izaten, eta 4) kontsumitzaile askoren jarrera aldatzen ari da, pestizidarik erabiltzen ez duen nekazal-sistema baten alde apustu eginez (van Lenteren eta kideak, 2018). Kontrol biologikoarekin lotutako hainbat metodo ezberdin erabili izan dira; hauen artean, etsai-natural ez natiboen sarrera (**ENEN**, kontrol biologiko klasikoa), etsai-natural natiboen (**ENN**) populazioen kontserbazioa beraien bizi baldintzak hobetuz (kontserbazio bidezko kontrol biologikoa, **KBK**), biopestiziden ekoizpena (hau da, izurrien kontra borrokatzeko patogenoz osatutako produktu ez-kimikoak), edota intsektuekiko iraunkorrak diren laboreen landaketa transgenikoak aurki ditzakegu (Van Driesche eta Hoddle, 2009). Kontrol biologikorako bide horiek, oraindik gutxi erabiliak diren arren, berebiziko garrantzia izan dute historian zehar, baina, gaur egun guztiz beharrezkoak bilakatu dira ingurumenarekin bat egiten dutelako.

Tradizionalki, kontrol biologiko klasikoan oinarritutako metodoak sarri erabiltzen ziren izurriteekin akabatu edo hauek dentsitate maila baxuetan mantentzeko. **ENEN**-en sarrera masiboek ordea, hondamendi ekologiko larriak sor ditzake (begiratu berrikuspena, Hajek eta kideak, 2016). Zentzu honetan, eragile biologiko asko izurrien kontra oso eraginkorrak badira ere, dituzten albo-ondorioak kontuan hartu behar dira nahitaez. Adibidez, harrapakin anitzez baliatzen diren **ENEN**-ak helburu diren espezieez gain (izurrite diren intsektuak adibidez), ekologikoki garrantzia duten beste organismo ugari ustiatu ditzakete, eta ondorioz, espezie inbaditzaile bihurtu. Horrekin lotuta, Holt eta Hochberg (2001) eta Van Driesche eta Hoddle (2016) ezagutarazi zituzten izurrien kontrolerako erabiltzen diren eragile biologiko ezberdinek eduki ditzaketen efektu ekologiko larriak: besteak beste, izurrite ez diren beste organismoengan eragin zuzena izan ditzakete, hauek ehizatu

edota baliabide ezberdinekiko konpetentzia sortuz, konpetentzia esplotatzailea sortuz, beste etsai-natural potentzialak ehizatuz, edota espezie natiboekin hibridatuz (1. irudia).




**1. irudia.** Kontrol biologiko klasikoaren albo efektu posibleak izurriak ez diren gainerako organismoengan. Geziek harrapakaritza adierazten dute eta alde-biko geziek ordea, konpetentzia (KO) edo hibridazioa (H). Gezi gorriek izurriak ez diren gainerako organismoetan eragindako zeharkako efektuak adierazten dituzte.

Hori dela eta, teknika hauek ez dira gomendagarriak eta gutxitan erabili ohi dira gaur egun (baina begiratu, adibidez, Ferracini eta kideak, 2019). Bestalde, mikroorganismoen bidezko pestiziden erabileran oinarritutako biokontrolerako estrategiak arras eraginkorrak, izurri zehatzekiko espezifikoagoak eta zeharo merkeagoak dira intsektizida kimikoen aurrean (Van Driesche eta Hoddle, 2009). Azken hamarkadetan, *Bacillus thuringiensis* (**Bt**) bakteriotik, hainbat birusetatik eta onddoetatik eratorritako toxinen erabilera (biopestizidak) sustatu egin da alternatiba jasangarri gisa, izurrien populazioak hil edo kontrolatzeko duten ahalmena dela eta (1. taula). Hala ere, biopestiziden erabilera ez da %5era iristen izurrien kontra saldutako produktuen artean (Olson, 2015). Gainera, teknologia

molekularrak, gene zehatzen adierazpena aldatuz, baimentzen du Bt-dun laboreak ekoiztea, eta ondorioz, izurriekiko babesa emendatzen da (adibidez, Lu eta kideak, 2012). Dena den, azken hamarkadan zenbait izurritek transgeniko hauekiko erresistentzia garatu dute (Tabashnik eta kideak, 2013) eta beraz, haien bideragarritasuna bertan behera geratu da.

**1. taula.** Biopestizida gisa erabilitako mikroorganismo ohikoenetarikoak *Kabaluk eta kideak (2010)*-en arabera.

| Biopestizidarako espeziea | Kaltetutako izurriak |
|---|---|
| **Bakterioak** | |
| *Bacillus thuringiensis* subsp. *kurstaki* | Lepidopteroen larba |
| *B. thuringiensis* subsp. *aizawai* | Lepidopteroen larba |
| *B. thuringiensis* subsp. *galleriae* | Lepidopteroen larba |
| *B. thuringiensis* subsp. *tenebrionis* | Koleopteroen larba |
| *B. thuringiensis* subsp. *israelensis* | Eltxo eta simulidoak |
| *B. sphaericus* | Eltxoen larbak |
| *B. moritai* | Dipteroak |
| **Birusak** | |
| Granuloviruses | Lepidopteroen larba |
| Nucleopolyhedroviruses | Lepidopteroen larba |
| **Onddoak** | |
| *Beauveria bassiana* | Euli zuriak, afidoak, trips-ak |
| *Lecanicillium muscarium* | Euli zuriak, afidoak, trips-ak |
| *Paecilomyces fumosoroseus* | Euli zuriak |

Azkenik, KBK epe luzerako hurbilketa integrala da. Neurri ezberdinen bidez nekazal sistemak berregituratu egiten dira, izurrien kontrolerako onuragarriak izan daitezkeen bertako harrapakari, parasitoide edota organismo patogenoen habitaten egoera esanguratsuki hobetuz (Van Driesche eta Hoddle, 2009). Oro har, nekazal sistemetako izurrien etsai-naturalen kopurua eta dibertsitatea emendatu egiten da inguruko habitat heterogeneotasuna emendatuz, nekazaritzako

kudeaketa intentsiboa murriztuz, edo paisaia-egitura konplexuetan (Begg eta kideak, 2017). Hala ere, badira KBK-rekin harreman estua duten beste hainbat faktore; besteak beste, ENN eta harrapakinen banaketa, gordeleku potentzialen eskuragarritasuna, habitat ezberdinen konektagarritasuna, elkarrekintza trofikoak, edo paisaiaren eragina. Guztiak dira bere horretan eskala anitzeko hurbilketa honen parte garrantzitsu (Veres eta kideak, 2013; Chailleux eta kideak, 2014; Schellhorn eta kideak, 2014) (2. irudia).




**2. irudia.** Kontserbazio bidezko kontrol biologikorako (KBK) kontuan hartu beharreko hainbat eragile ekologiko.

Aurretik aipatutako biokontrolerako estrategiek, modu isolatuan erabilita, ez dute nahikoa presio ezartzen izurrien populazioak maila jasangarrietan mantentzeko. Hori horrela, gero eta gehiago dira estrategia ezberdinen konbinazioez baliatzen direnak izurrien kalteak baretzeko. Adibide gisa, etsai-naturalez baliatuz, izurriak ustiatzen dituzten harrapakari natibo anitzen ekintza sinergikoa (adibidez, KBK sustatuz), eta noizbehinkako biopestiziden erabilera proposatu izan da (Torres eta Bueno, 2018) (3. irudia). Harrapakin-dentsitatearen menpeko harrapakariak oso preziatuak dira nekazaritzan, izan ere, harrapakin-ugaritasunaren arabera erantzuten dute (adibidez, izurrien eztanda masiboak), kasu batzuetan izurrien populazioak maila jasangarrietan mantentzeko gai direlarik. Hauen artean, harrapakari jeneralistak aurki daitezke.

Urte osoan zehar nekazal sistemetan modu iraunkorrean bizi diren harrapakari jeneralistak biokontrolatzaile oso eraginkorrak izan daitezke, besteak beste, beraien

izaera trofiko oportunistak beste harrapakin mota ugari ustiatzea baimentzen baitie izurrien eskasia garaietan (Ehler, 1998; Symondson eta kideak, 2002). Bestalde, izurrien estai-naturalek eraginkorrak izateko zenbait ezaugarri ezinbestekoak dira: 1) dispertsio gaitasun eta eremu berrien kolonizaziorako abilezia izurrien inbasioei aurre egiteko (Ehler eta Miller, 1978); 2) bazka-jokabide oportunista izurrien bat-bateko dentsitate-gorabeherei erantzuteko, eta 3) izurri-eskuragarritasunaren araberako erantzun positiboa (Symondson eta kideak, 2002). Hori horrela, zenbait saguzar intsektiboroen ezaugarri ekologikoek bat egiten dute goian aipatutakoekin eta, ondorioz, azken urteetan ikertzaile askok arreta ugaztun hegalari hauengan jarri dute.


**3. irudia.** Nekazal-sistema jasangarriaren eredua, KBK estrategian eta biopestizida bidezko ihinztapen selektiboan oinarrituz.

## Saguzar-Intsektiboroen Bazka-Ekologia eta Balio Ekonomikoa

Saguzar intsektiboroek (ezagutzen diren espezieen % 70 artropodoez elikatzen da, 980 espezie inguru, Simmons eta Cirranello, 2020) ekokokapena eta hegan modu aktiboan egiteko gaitasuna garatu dituzte eboluzioan zehar. Ezaugarri hauek ezinbestekoak izan dira gaueko bizimodura moldatu eta bertako intsektu talde ugariz baliatzeko (Jones eta Rydell, 2003). Are gehiago, saguzar intsektiboroen dibertsitate ekologiko altua zeharo lotuta dago saguzarren ekokokapen eta hegakerarekin erlazionatutako jokamolde, ezaugarri morfologiko eta sentsorialekin: hegakera-azkarreko saguzarretatik, hego estu eta luzedunak, frekuentzia-baxuko ekokokapen deiak igortzen dituztenak, eremu irekietan hegaz egiten duten artropodoez ehizatzera ondo moldatutakoak (adibidez, *Tadarida brasiliensis*, Lee eta McCracken, 2002), saguzar motel, baina distantzia laburretan oso abilak direnetara, hego-labur eta zabalekoak, ingurune itxietan harrapakin iheskorrak harrapatzeko gaituak (adibidez, *Rhinolophus hipposideros*, Abbott eta kideak, 2012). Hortaz, esan dezakegu saguzar-espezie bakoitzaren ezaugarriek hauek erabilitako nitxo-trofikoa baldintzatzen dutela, hots, saguzar-espezie bakoitza detektatzeko, ehizatzeko eta kontsumitzeko gai den harrapakin mota (Jones eta Rydell, 2003; Swartz eta kideak, 2003). Saguzar intsektiboro batzuk dietaren ikuspuntutik oso jeneralistak eta oportunistak diren bitartean (adibidez, Vesterinen eta kideak, 2013; Aldasoro eta kideak, 2019), beste hainbatek lehentasuna dute taxon espezifikoekiko, adibidez sits, kakalardo edo armiarmekiko (adibidez, *Plecotus macrobullaris*; Alberdi eta kideak, 2012, *Myotis myotis*; Pereira eta kideak, 2002, *Myotis emarginatus*; Goiti eta kideak, 2011). Bereziki, sitsak dira saguzarren ikuspuntutik talde esanguratsuenetariko bat (Jones eta Rydell, 2003). Saguzarren kontsumo tasa eta bazka ohiturak kontuan hartuta (egunean beraien gorputz masaren % 70 beste intsektu jan ditzakete, Kunz eta kideak, 1995), eta sitsak nekazal sistema askotako izurri nagusiak direla jakinda (Alford, 1999), saguzarrak nekazaritzako izurrien oinarrizko ustiatzailetzat jotzen dira (Russo eta kideak, 2018). Antza, nekazal-industriak 22,9 bilioi dolar aurrezten ditu urtean saguzarren harrapakaritzari esker (Boyles eta kideak, 2011). Dena den, saguzarren balio ekonomikoa zehazteko zenbait prozedura ekologiko kontuan hartu behar dira, adibidez, saguzarrek kontsumitzen dituzten izurri espezieen zerrenda, saguzar-

espezie bakoitzak jaten dituen izurri kopurua, eta saguzarren harrapakaritzak izurrien populazioetan duen eragina (Boyles eta kideak, 2013), besteak beste. Hurbilketa hauek ordea, zailtasun logistiko eta metodologikoz josita daude, eta nolabait, galarazi egiten digute saguzarrek duten balioa zehaztasunez neurtzea. Horren adibide, duela urte gutxi batzuk arte, saguzarren dieta lanak gorotzetan agertzen ziren digeritu gabeko harrapakinen arrastoen identifikazioan oinarritzen ziren (adibidez, Pereira eta kideak, 2002; Goiti eta kideak, 2003; Bontadina eta kideak, 2008). Dena den, oro har, sitsen eta beste hainbat intsektuen atal samurrak digestioan zehar zeharo deskonposatzen dira, eta horrek, eragotzi egiten du bisuzko espezieen identifikazioa. Hori dela eta, gorotzetan agertzen ziren harrapakinen arrastoen identifikazioa ordena edo familia mailan baino ez zen egiten (Whitaker eta kideak, 2009). Esan dezakegu beraz, ohiko metodoek ez zutela zehaztasun taxonomiko nahikorik adierazten saguzarrek izurrien ustiatzaile gisa eskaintzen dizkiguten zerbitzu ekosistemikoez jabetzeko (Boyles eta kideak, 2013).

## DNA metabarcoding-en etorrera: Aukerak eta Erronkak

DNA **metabarcoding**-en etorrerak aurrerapauso izugarria suposatu du bazka-ekologiaren esparruan, batez ere harrapakari eta harrapakinen arteko elkarrekintza trofikoak modu zehatzago batean ezagutzea baimendu duelako (Taberlet eta kideak, 2012). Testuinguru horretan, C-zitokromo oxidasa I (COI) hasleen garapenari esker, zeina espezieen artean nahikoa aldakorra den, baina, era berean, espezie beraren baitan aski kontserbakorra dena, eta "***High Throughput Sequencing***" sekuentziazio masiboari esker, kapaz gara ehundaka ingurumen-DNA (***eDNA***) lagin prozesatu (adibidez, gorotzak) eta saguzar zein beraien harrapakinak espezie mailan identifikatzeko (adibidez, Tournayre eta kideak, 2020). Hori horrela, **metabarcoding**-ek saguzarren dieta orokorra modu zehatzean erakusten du, izurriak diren harrapakinak eta izurriak ez direnak, eta hortaz, oso metodo baliagarria bilakatu da elkarrekintza-trofiko eta bazka-sareen inguruko ezagutza hobetzen duelako (Casey eta kideak, 2019). Halaber, azken urteotako sekuentziazio tekniken prezioen murrizketek, eta berriki publikatutako dieta-analisien protokoloen hobekuntzek (Alberdi eta kideak, 2018), **metabarcoding**-aren erabilera

ekologia-lanetan erabat emendatzea eragin dute. Horren erakusle dira azken hamarkadan gaiarekin lotuta publikatu diren 155-etik gorako ikerketa-lanak (Ando eta kideak, 2020). Ahalmen handia izan arren, oraindik ere badira kontuan hartu beharreko zenbait erronka tekniko eta metodologiko ugari:

a) Gorotz laginetan agertzen diren harrapakin sekuentzien presentzia/ausentzia datuen interpretazioan oinarritzen denez, dietaren ebaluazio kualitatiboa egitea baino ez du baimentzen.

b) Jomuga diren espezieak erreferentziazko datu-baseetan pobreki karakterizatuak egotekotan litekeena da sekuentzia horiek espezie mailan esleitu ezin izatea (Alberdi eta kideak, 2018).

c) Hasle egokien aukeraketa erabaki eztabaidagarria izan daiteke. Zenbait markatzailek talde taxonomiko oso ezberdinak anplifikatzeko gai dira, baina kontrara, hasle mota hauekin baxuagoa izaten da espezie-mailako ebazpena (Epp eta kideak, 2012). Gainera, hasle bakoitzak taxon espezifikoekiko alborapena erakuts dezake, sekuentzia horien presentzia balioetsiz eta beste batzuena gutxietsiz.

## Izurrien detekziorako estrategia alternatiboak: espezieekiko espezifikoak diren PCR metodoak.

Metodo zuzenduak, adibidez PCR konbentzionala (cPCR) eta PCR kuantitatiboa (qPCR), hasle espezifikoekin batera, maiz erabiltzen dira lagin mota ezberdinetan espezieen detekziorako (adibidez, Jarman eta kideak, 2004; Martin eta Rygiewicz, 2005; Czernik eta kideak, 2013; Nowakowska eta kideak, 2017; Knudsen eta kideak, 2019). **Metabarcoding** ez bezala, hurbilketa zuzendu hauek helburu diren espezieen detekzio zehatza eta arina ahalbidetzen dute eta gainera, hasleen alborapena ekiditen da. Hori horrela, espezie baten edo gutxi batzuen detekzioa xede den kasuetan metodo zuzenduak hobesten dira (Wood eta kideak, 2019). Detekzioaz gain, qPCR teknikak gorotzetako DNA-ren kuantifikazio edo semikuantifikaziorako ahalmena duela argudiatu izan da (Deagle, 2005, 2007; Gosh eta kideak, 2018), baina, gaur egun arte, saguzarren gorotzekin egin diren saiakera apurrek kale egin dute (McCracken eta kideak, 2005, 2012). Tesi honen garapena

beraz, batik bat lau faktore nagusik eragin dute: saguzar eta izurrien artean dagoen elkarrekintzaren ezagutza gabeziak, DNA metabarcoding-en dieta analisirako gaitasunak, saguzarrek izurrien ustiatzaile gisa eduki ditzaketen ahalmenak eta baita, izurrien monitorizaziorako metodo azkar, efiziente eta kuantitatiboak aurkitzeko beharrak ere.

## Eredutzat erabilitako laboreak eta espezieak

Tesia hiru hurbilketa ezberdinetan oinarritu da: 1) saguzar eta izurrien arteko elkarrekintzak batetik (**hurbilketa ekologikoa**, 1. eta 2. kapituluak), Iberiar Penintsulako mahastien sistema bat ardatz izanik; 2) izurrien detekziorako eta kuantifikaziorako teknika molekularren efizientzia bestetik (**hurbilketa metodologikoa**, 3. kapitulua), horretarako eredu-espeziea pinuetako prozesionaria (***Thaumetopoea pityocampa***) izanik, eta 3) saguzar-izurrien ikerketen diseinurako jarraibide eta muga metodologikoen berrikuspena (**diseinuari lotutako hurbilketa**, 4. kapitulua).

Eredutzat erabilitako laborea **mahastia** izan zen eta *Rhinolophus hipposideros* eta *T. pityocampa* tesiaren eredu-espezieak izan dira hurrengo arrazoiengatik:

1. Hurbilketa ekologikoa: mahastiak

**a) Hedadura eta garrantzia sozio-ekonomikoa:** munduko nekazal-lurren % 15 mahastiez estalita dago, guztira 7,4 milioi hektarea osatzen dituztelarik. Bereziki, Iberiar Penintsula da mundu-mailan mahastiez estalitako eremurik hedatuena (munduko mahasti-azaleraren % 16-a) eta beraz, ardo-ekoizle nabarienetarikoa ere (OIV, 2019). Horren ondorioz, garrantzia sozio-ekonomiko handia du gaur egun (Vivier eta Pretorius, 2002).

**b) Mahastietako izurriekin arazoak:** gorago aipatu bezala, paisaia-mailan aldaketa handiak eman dira, batez ere nekazaritzarako erabiltzen diren lurren kudeaketa intentsiboa areagotu egin baita. Horrek lur-gainazal eta landaredian aldaketak sortu ditu, artropodoen populazioetan eraginez eta ondorioz, izurrien berpizteak emendatuz. Zehazki, eskualde Palearktikoan badira galera ekonomiko garrantzitsuak eragiten dituzten zenbait sits espezie, besteak beste, *Lobesia*

*botrana, Sparganothis pilleriana, Eupoecilia ambiguella,* edo *Argyrotaenia ljungiana* (Ioriatti eta kideak, 2012; Thiéry eta kideak, 2018).

**c) Ezagutza mugatua mahastietako saguzar eta izurrien arteko elkarrekintzaren inguruan:** aurretik, saguzarrek mahastiak bazka-eremu gisa erabiltzen dituztela jakin arren (Stahlschmidt eta kideak, 2012; Kelly eta kideak, 2016; Froidevaux eta kideak, 2017), tesi honi hasiera eman genionean ez zegoen inolako ezagutzarik saguzarren eta haien harrapakin potentzialak diren mahastietako izurrien artean.

Gainera, lehenengo kapitulurako, ferra-saguzar txikia *R. hipposideros* aukeratu genuen eredu-espezie bezala. Badira hainbat faktore espeziea aproposa egiten dutenak tesiko galderei erantzuteko:

1.1 *R. hipposideros:*

a) Europan hedatuta dagoen espeziea da eta ikerketa-eremuan historikoki maiz agertu den saguzarra (Agirre-Mendi, 2003; Migens, 2007).

b) Lurretik gertu ehizatu ohi da, zuhaixken artetik (adibidez, mahats-mordoak) eta ehiza-estrategia ezberdinak erabil ditzakete habitataren arabera, harrapakin-mota anitzez baliatzea ahalbidetzen dielarik. Adibidez, airean harrapakinak ehizatu eta landaredi edo lur gainean mugimenduan dauden artropodoei eraso egin diezaiekete (Jones eta Rayner, 1989; Siemers eta Ivanova, 2004).

c) Beraien berezko ekokokapen-sistemak tamaina-txikiko sitsak (adibidez, xede diren izurriak) detektatu, espazioan kokatu eta sailkatzea ahalbidetzen die.

d) Aurretik egindako ikerketek adierazten dute espezie honen dieta nagusiki lepidopteroek (sitsak) eta dipteroek osatzen dutela (Lino eta kideak, 2014; Mitschunas eta Wagner, 2015; Galan eta kideak, 2018), eta ondorioz, saguzar-espeziea taxon hauen izurrien harrapakari potentziala kontsidera daiteke.

e) Udaberri-udan leialtasun handia erakutsi ohi du erabiltzen dituen gordelekuekiko eta horrek erraztu egiten du gorotzen bilketa eta dieta azterketak garai hauetan denboran zehar burutzea.

f) Kolonietan multzokatzeko joera dutenez gero, hainbat indibiduoren gorotz-lagin tamaina esanguratsuak lor daitezke.

2. Hurbilketa metodologikoa: *T. pityocampa.*

i. **Inpaktu sozio-ekonomikoa:** Mediterraneoko arroan zehar eta Ekialde Hurbilean sozio-ekonomikoki garrantzitsua den basoko izurria da (Kerdelhué eta kideak, 2009).

ii. **Hasleen diseinua eta balioztatze prozesuak:** erreferentziazko sekuentzien datu-baseetan (adibidez, BOLD eta NCBI) informazio franko dago espezie kongenerikoen (*Thaumetopoea* spp.) gainean. Horrek errazten ditu hasleen diseinua eta balioztatze prozesuak *in silico*.

iii. **Gainjartze geografikoa:** izurriaren eta ezagunak diren saguzar-kolonia askoren banaketa-eremuek bat egiten dute. Saguzarren hainbat gordeleku sitsaz izurriztatutako pinadietatik oso gertu aurkitzen ziren. Horrek emendatu egiten du *T. pityocampa*-ren DNA-dun gorotzen bilketa.

## COVID-19 eta saguzarrak jazartzeko arriskua

2019ko amaieran Txinan agertu zenetik, **COVID-19** mundu osoan zehar barreiatu da, eta 2020-ko hasieran Munduko Osasun Erakundeak (**MOE**) pandemia izendatu zuen. Saguzarrak bidegabeki jarraituak izan dira (ikusi MacFarlane eta Rocha, 2020) **SARS-CoV-2, COVID-19**-aren eragilea, eta aurretik Txinako ferra-saguzar espezie batean (*Rhinolophus affinis,* Zhou eta kideak, 2020) aurkitu izandako **Bat CoV RATG13** koronabirusaren arteko antzekotasun-maila altuagatik. Bi birusak estuki erlazionatuta egon arren (Zhou eta kideak, 2020), azterketa filogenetikoek birusak orain dela 40-70 urte elkarrengandik banandu zirela aitortzen dute (Boni ***et al.***, 2020), eta beraz, oraindik ere ez dakigu beste animalia talderik tartean egon daitekeen. Saguzarrak askotan gaixotasunen iturritzat jotzen dira, beharbada aurretik eman diren hainbat zoonosiekin izandako loturagatik, hala nola, **SARS**, **Ebola** edota **Nipah henipabirusa** (Brook eta Dobson, 2015). Hala eta guztiz ere, Mollentze eta Streicker (2020) frogatu zuten saguzarretan aurki daitezkeen birusen proportzioa ez

dela ohiz kanpokoa beste ugaztun taldeekin konparatuz gero, hots, saguzarretan aurki daitezkeen birus kopuruek bat egiten dute talde honetako espezieen dibertsitate altuarekin. Testuinguru honetan, hainbat zientzialari (adibidez, Fenton eta kideak, 2020; MacFarlane eta Rocha, 2020; Rocha eta kideak, 2020) eta gobernuz kanpoko erakunde (adibidez, Bat Conservation Trust, 2020; Bat Conservation International, 2020) lanean ari dira saguzarren kontserbazioan eta ekologikoki zein ekonomikoki eskaintzen dituzten onura eta zerbitzu ekosistemikoen komunikazioan, hauen kontra sor daitezkeen erantzun oldarkorrak ekiditeko. Zentzu honetan, tesi honek saguzarrek nekazaritzan duten eginkizuna argitu dezake, eta espero dut sortutako estereotipo negatiboei aurre egiteko ere lagungarri izatea.

## Tesiaren helburuak

Hitz gutxitan, tesiaren helburu orokorra da saguzar-intsektiboroek mahastietan eskaintzen dituzten zerbitzu-ekosistemikoak hobeto ulertzea eta PCR teknika ezberdinek saguzarren gorotzetan izurrien jarraipenerako duten eginkizuna aztertzea. Tesiko galdera nagusiak hurrengoak dira: a) zein da saguzarrek izurrien erregulatzaile gisa duten ahalmena eta zein izurri-espezie kontsumitzen dituzte?, b) saguzarrek mahastietako izurrien populazioak jarraitu eta ustiatzen dituzte?, c) saguzarrek denboran zehar ematen diren izurrien gorabeherekiko erantzuten dute?, d) zein metodo molekular da egokiagoa helburu diren izurrien detekziorako, metabarcoding edo PCR metodoak?, e) qPCR metodo aski sendoa eta fidagarria ote da *T. pityocampa* saguzarren gorotzetan kuantifikatzeko?

Tesia lau kapitulu nagusitan egituratzen da hurrengo helburuak zehaztu direlarik:

– **1. kapitulua.**

Ikerketa ugarik, artoa, kotoia, arroza edota makadamia intxaurren nekazal eremuetan kalteak sortzen dituzten izurriak aurkitu dituzte saguzarren dietan. Hala ere, era honetako ikerketak ez dira burutu mahastietan. Gainera, lan mota hauek ez dira denboran zehar burutu, momentu konkretu batean baizik. Saguzarrek momentuko harrapakinen eskuragarritasunaren arabera dietaren

konposizioa drastikoki alda dezaketela kontuan izanik, baliteke izurriak ehizatzeko duten ahalmena gutxietsi izana. Kapitulu honetan *R. hipposideros*-en dieta aztertu genuen mahatsaren hazkuntza-denboraldi osoan zehar, espezie honek mahastietako eta beste hainbat nekazal guneetako izurrien kontra bete dezakeen funtzioa zehazteko.

– **2. kapitulua.**

Saguzarrak mugikortasun handiko animaliak izanik, gauero hainbat kilometroko desplazamenduak egin ditzakete harrapakinetan ugariak diren bazka-toki egokien bila. Gaur egun, nekazal gune askotan labore bakarra lantzen dute, horrek daraman paisaiaren sinplifikazioari erreparatu barik. Sinplifikazio horrek labore horien izurri diren populazioak ezartzea eta sakabanatzea baimentzen die. Horren ondorioz, nekazaritza-eremuetan bazkatzen diren saguzar-espezie askoren harrapakin-iturri nagusia intsektu-izurriak izan ohi dira. Hori horrela, saguzar-espezie ezberdinek modu oportunista batean jokatzen duten eta positiboki izurrien dentsitateekiko erantzuten duten aztertu genuen bi modutan: batetik, saguzarrak izurriak ugari diren sailetan elkartuz (agregazio-erantzuna) eta izurrien kontsumoa beraien ugaritasun balioetara egokituz (erantzun funtzionala).

– **3. kapitulua.**

Oro har, harrapakarien dieta lanetan gorotzetako DNA erauzi eta metabarcoding teknika aplikatzen da dietan agertzen diren izurriak identifikatzeko. Azken urteotan, teknika honi lotutako kostuak murriztu badira ere, lagin tamaina handiekin edo erreplikekin lan egitean, kostuak zeharo igotzen dira. Bestalde, PCR metodoak (adibidez, cPCR eta qPCR) hasle espezifikoekin batera teknika azkar, efiziente eta errentagarriak dira saguzarren dietan helburu diren espezie konkretuen detekziorako (adibidez, *T. pityocampa*). Horrez gain, qPCR teknika saguzarren dietaren parte diren harrapakinak kuantifikatzeko erabil daitekeela susmatzen da. Hortaz, qPCR-ak kuantifikaziorako duen ahalmena eta balioa ebaluatu ziren. Azkenik, PCR metodo ezberdinen detekzio-efizientziak konparatu

eta bata edo bestea erabiltzearen abantailak eta desabantailen inguruan eztabaidatu genuen.

– **4. kapitulua.**

Saguzarrek nekazaritzako produkzioan eta izurrien kontrako kudeaketan laguntzen dutela argi geratu da azken urteotan. Urtero, gero eta gehiago dira saguzar eta izurrien arteko elkarrekintzak aztertzen dituzten lanak, nekazaritza-mota ezberdinetara eta munduko txoko ezberdinetara zabalduz. Hala ere, hurbilketa hauetan guztietan ikerlariek aurre egin behar diete muga metodologiko eta erronka ugariri. Horrela izanik, kapitulu honetan ikerketa prozesuan aurki daitezkeen muga eta zailtasun garrantzitsuenak identifikatu, ebaluatu eta berrikusi genituen etorkizunean egin daitezkeen antzeko ikerlanen diseinua hobetu eta ikerlariak bideratzeko.

# Chapter 1

# Bats as potential control agents of pests in vineyards: *Rhinolophus hipposideros* as a case study

*Photo by Oriol Massana and Adrià López-Baucells*

An article on this Chapter was published in *PLoS One*:
Baroja, U., Garin, I., Aihartza, J., Arrizabalaga-Escudero, A., Vallejo, N., Aldasoro, M., & Goiti, U. (2019). Pest consumption in a vineyard system by the lesser horseshoe bat (*Rhinolophus hipposideros*). *PLoS One , 14*(7), e0219265

# Bats as potential control agents of pests in vineyards: *Rhinolophus hipposideros* as a case study

## Abstract

Herbivorous arthropods cause immense damage in crop production annually. Consumption of these pests by insectivorous animals is of significant importance to counteract their adverse effects. Insectivorous bats are considered amongst the most voracious predators of arthropods, some of which are known crop pests. In vineyard-dominated Mediterranean agroecosystems, several crops are damaged by the attack of insect pests. This chapter aimed 1) to explore the diet and pest consumption of the lesser horseshoe bat *Rhinolophus hipposideros* and 2) analyse whether the composition of pest species in its diet changes throughout the season. We employed a dual-primer DNA metabarcoding analysis of DNA extracted from faeces collected in three bat colonies of a wine region in Southwestern Europe during the whole active period of most pest species. In all, 395 arthropod prey species belonging to 11 orders were detected; lepidopterans and dipterans were the most diverse orders in terms of species. Altogether, 55 pest species were identified, 25 of which are known to cause significant agricultural damage and eight are regarded as pests affecting grapevines. The composition of pest species in faeces changed significantly with the season, thus suggesting several periods should be sampled to assess the pest consumption by bats. Overall, the results imply that *R. hipposideros* acts as a suppressor of a wide array of agricultural pests in Mediterranean agroecosystems. Therefore, management measures favouring the growth of *R. hipposideros* populations should be considered.

**Keywords**: Crop Pests, Insectivorous Bats, *Rhinolophus hipposideros*, Pest Consumption

## Laburpena

Artropodo herbiboroek urtean kalte esanguratsuak eragiten dituzte nekazaritzako produkzioan. Izurri hauek kontsumitzen dituzten animalia intsektiboroek duten eginkizuna beraz, funtsezkoa izan daiteke nekazaritzan sortzen dituzten galerei aurre egiteko. Saguzar intsektiboroak artropodoen jatun handienen artean sailka daitezke, hauetako asko izurri ezagunak direlarik. Mahastiez gailendutako nekazal-sistema mediterraneotan intsektuek kalteak eragiten dituzte zenbait laboreetan. Kapitulu honetan hurrengo helburuak zehaztu dira: 1) ferra-saguzar txikiaren *Rhinolophus hipposideros* dieta eta izurriak kontsumitzeko ahalmena aztertu eta 2) izurri espezieen konposizioa dietan sasoian zehar aldatzen den analizatu. Horretarako, Europa Hego-mendebaldeko mahastien sistema batean, hiru kolonietatik saguzarren gorotzak bildu genituen izurri gehienak aktibo dauden denboraldi osoa zehar, ondoren DNA erauzi eta metabarcoding analisia burutu genuen bi hasle molekular erabiliz. Guztira, 11 artropodo ordena ezberdinetako 395 harrapakin espezie detektatu ziren; lepidopteroak eta dipteroak izan ziren talderik anitzenak espezie kopuruei erreparatuz. Denetara, 55 izurri-espezie identifikatu ziren, horietatik 25 nekazaritzan kalte esanguratsuak sortzeko gaitasuna dutenak eta 8 dira mahastiei eragiten dietenak. Izurri espezieen konposizioa saguzarren gorotzetan esanguratsuki aldatu zen sasoi ezberdinetan, nolabait aditzera emanez hainbat denboraldi lagintzea beharrezkoa dela saguzarren izurriak kontsumitzeko ahalmena xedatzeko. Orokorrean, emaitzek iradokitzen dute *R. hipposideros* nekazal sistema mediterraneoetan izurri-mota anitzen ustiatzailetzat jarduten dela. Ondorioz, *R. hipposideros*-en populazioen hazkundea faboratuko duten neurriak gogoan hartu beharko litzateke.

**Hitz gakoak**: Izurriak, Saguzar Intsektiboroak, *Rhinolophus hipposideros*, Izurrien Kontsumoa

## Introduction

The increasingly tight regulation of chemical pesticide use in agriculture, the rapidly developed resistance by pests, and the rising consumer awareness for sustainably produced crops (Jensen ***et al.***, 2016) have stimulated growing attention on the importance of biological suppression as a pest management tool (Zehnder ***et al.***, 2007; Naranjo ***et al.***, 2015). The annual crop damaged by herbivorous arthropods (mainly lepidopteran larvae) is estimated between 10-26% globally (Oerke, 2006; Culliney, 2014). Further, rising temperatures due to climate change may benefit insect pests, resulting in higher yield losses (Bale ***et al.***, 2002; Deutsch ***et al.***, 2018).

**Figure 2.** Overview of the experimental workflow for the quantitative assessment of qPCR.

For the experiment, we tested 1) 29 mock sample mixtures, i.e., fresh DNA from *T. pityocampa* (*C+*) mixed with DNA of other moths (*C-*) and 2) 35 faecal sample

mixtures, mixed DNA from fresh *T. pityocampa* (*C+*) and bat faeces without *T. pityocampa* (*Th$_{out}$-*) (Figure 2). In faecal mixtures, the *T. pityocampa* DNA concentration of 1 ng/µL was not used due to problems in maintaining molarity values. The amplification process was carried out following the same qPCR protocol described above. Besides, we also constructed standard curves in triplicate using a five-fold dilution series of targeted templates, from 3.3 x $10^6$ to 5.2 x $10^{10}$ copies per µL, to predict the abundance of target DNA present in tested samples.

## Data analysis

All the statistical analyses were carried out in R Studio v. 1.4.1103 and R v.4.0.3. (R Core Team, 2020). We conducted further analysis for each of the following questions:

- **The effect of replication effort on detection probabilities.** As described by Piggot (2016), an increase in the PCR replication effort leads to an increased likelihood of detecting a target present in the sample. Accordingly, we aimed to evaluate the detection probabilities over the three replicates, for which we used the following equation for each of the replicates:

$$D/(D+ND),$$

where D is the number of detections and ND is the number of non-detections.

- **The relationship between DNA quantity and detection probability by cPCR and qPCR.** We should expect a higher detection rate in those samples with a higher target DNA concentration. Hence, we examined if there is a relationship between the average DNA abundance estimated from triplicates of *Th+* samples by qPCR and the detection rates by each PCR assay over the three replicates, for which we fitted logistic regression models (quasi-binomial family) using *glm* function of the *stats* package in R (R Core Team, 2020).

- **The relationship between input and output DNA concentrations.** We tested whether the input DNA concentrations correlated with the average concentrations estimated by triplicated samples in both mock and faecal samples and determined

our qPCR technique's accuracy to predict target DNA concentrations. For that, we compared abundances yielded by qPCR against the expected DNA concentrations. Ideally, we should expect a positive correlation with a slope near 1. Hence, we initially fitted a linear regression model, but the residual spread increased along with the explanatory variable, which violated the homogeneity of variance assumption of our linear regressions. Therefore, we fitted a generalised least squares (GLS) model with a combined variance structure using the *varComb* function of the *nlme* package (Pinheiro ***et al.***, 2021), allowing an increase in the residual spread for larger **input** DNA concentrations as well as a different spread per sample type (mock or faecal). Afterwards, we carried out a likelihood ratio test for the fixed component selection, comparing nested models with three possible explanatory variables: run, sample type and input DNA. The test indicated that neither run nor sample type were important variables affecting the yielded DNA by qPCR. Therefore, the final model only included input DNA as an explanatory variable. We plotted all the models using the *ggplot2* package (Wickham, 2016).

## Results

Sequence analysis of the qPCR products revealed that all the *T. pityocampa* amplicons were 100% identical to the expected 89 bp fragment (Figure S3.2.). cPCR products also exclusively matched to *T. pityocampa,* but they did not show the same consistency as qPCR. Indeed, only two reverse sequences from cPCR sequencing analysis were 99% and 95% similar to the 131 bp fragment sequence, respectively. The rest of the sequences were not long enough to assess the adscription of the fragment. Overall, none of the negative controls showed signs of amplification and all the positive controls and their corresponding replicates exhibited amplification signals in both PCR assays (Figure S3.3., Table S3.1.).

cPCR showed a lower detection rate than qPCR for *Th+* samples (Figure 3), besides the increasing number of test replicates had a bigger impact on the detectability rate of the cPCR than the qPCR. Both assays tested negative for $Th_{out}$- samples.

Further, some samples tested with cPCR showed some nonspecific bands of different DNA fragment lengths together with the targeted band (Table S3.1.).




**Figure 3.** Detection probability of *T. pityocampa* DNA traces in faecal samples for each PCR assay as we increased the replicate effort (R).

Higher DNA concentrations of *T. pityocampa* in *Th+* samples resulted in an increased detection probability by the qPCR ($t=2.21$, $p< 0.05$), whereas that correlation did not hold for the cPCR assay ($t=1.16$, $p=0.25$) (Figure 4).

The results from the quantitative assessment experiment showed there is a highly significant correlation between the input and output DNA concentrations ($t=10.84$, $p<0.001$) with a mean slope value of 1.05 (95% CI, 0.85 to 1.23) (Figure 5). This output indicated that the average DNA concentration estimated from qPCR triplicates represented the DNA concentration present in the sample within a range of 85% and 123%.




**Figure 4.** The relationship between the detection probability and DNA concentration for cPCR and qPCR. The dotted lines indicate the fitted regression model and the coloured bands the 95% confidence interval.

## Discussion

We observed that the performance of two primer sets and PCR methods differed, affecting their efficiency to detect DNA traces of *T. pityocampa* in bat faeces. Studies on predator-prey trophic interactions are currently among the main highlights of ecological research (e.g., Arrizabalaga-Escudero ***et al.***, 2019; Curstdotter ***et al.***, 2019; Michalko ***et al.***, 2019; Baroja ***et al.***, 2021). In this context, finding robust molecular methods to reliably identify and quantify DNA of prey remains in predators' faeces is a fundamental issue, for instance, to gain insight into the ecosystem services provided by predators as pest suppressors.

Both PCR assays exclusively identified *T. pityocampa,* as revealed by the sequencing analysis, indicating they are highly specific to our target. In some samples, though, cPCR produced a predominant target band of 131 bp with multiple

nonspecific bands of different DNA fragment length, which suggests a reduction in the efficiency of the amplification, likely due to non-optimal amplification conditions, such as sub-optimal annealing temperatures (Sun ***et al.***, 2020), MgCl2 concentration, primer concentration or PCR cycling conditions (Roux, 2009).




**Figure 5.** The relationship between the input and output DNA concentration. The grey band indicates the 95% confidence interval and the dotted red line represents a slope of 1.

## Comparison of cPCR and qPCR

In line with previous findings of Piggot (2016), Xia ***et al.*** (2018) and Yang ***et al.*** (2020) qPCR had a higher sensitivity than cPCR. It proved to be a more reliable and robust assay to detect *T. pityocampa* in bat faecal samples for two main reasons:

1. **Replication effort**. Increasing the number of replicates leads to an improvement in the DNA detection probability. Nonetheless, while cPCR requires up to three replicates to detect *T. pityocampa* in the 80% of *Th+* samples, qPCR detected the target in 90% of the samples with a single replicate and 99% of them with three replicates. The only sample not tested positive by any of the PCR assays

was processed in 2014, and only 8 copies of the target sequence were found that time by metabarcoding. Hence, we cannot discard that the DNA degradation in such an old sample might have hampered the detection of *T. pityocampa*.

2. **Detectability and DNA concentration**. Ideally, a robust PCR method for species monitoring should reliably detect the target species, increasing the detection probability as the target DNA concentration in the sample rises (Mauvisseau ***et al.***, 2019). In line with this, the qPCR assay results showed a positive relationship between DNA concentration and the detection probability, which suggests that a higher incidence of *T. pityocampa* in bats' diet entails a greater likelihood of detection. In contrast, the lack of such correlation in cPCR denotes that the detectability of *T. pityocampa* might be influenced by other disturbing factors, such as the presence of PCR inhibitors in some samples. In fact, they affect more severely to cPCR than qPCR owing to its less sensitive detection mechanisms (Smith and Osborn, 2009; Xia ***et al.***, 2018), which in turn, prompt false-negative results (King ***et al.***, 2008), and a higher unpredictability.

## Diet quantification by qPCR

Our study also demonstrates the potential of qPCR assays to quantify DNA in bat faecal samples and, as a result, infer the predation levels on specific prey. We undertook extensive validation steps using mocks and faecal samples from a vast array of bat species, suggesting that the developed qPCR assay is robust for quantifying *T. pityocampa* in the bat faeces irrespective of the sample source. Further methodological studies should focus on developing or improving current molecular tools for the simultaneous identification and quantification of highly diverse polyphagous predators' diets, where dozens of species occur at a time (e.g., Baroja ***et al.***, 2019). The framework of this study can be taken as a model to design similar assays applicable to other species of interest, such as agricultural pests or insects of public health concern. Further, the incorporation of the multiplex qPCR, including Taq-man probes with various dyes, will enable the simultaneous amplification of multiple prey targets in a single reaction (Burbank and Ortega, 2018; e.g., up to five species with the CFX96 Real-Time PCR Detection System used in the

study). Because of the affinity differences between primers and their target sequences (Knudsen ***et al.***, 2019), quantitative interpretations from dietary data must focus on the intraspecific variations between samples rather than on interspecific differences.

# 4. Kapitulua

## Eztabaida orokorra

# Eztabaida orokorra

Tesi honetan zehar mahastietako saguzarren bazka-ekologiaz eta nekazaritzan eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemikoez aritu izan naiz batik bat. Azken hamarkadan, ikerketa gutxi batzuk saguzarrek nekazaritzan dituzten onurak agerian utzi dituzte eta ondorioz, asko dira mundu mailan antzeko ikerketak nekazal-sistema ezberdinetan burutzen ari direnak. Halaber, saguzar intsektiboroen eta izurrien arteko elkarrekintzak aztertzeko, hurrengo erreminta metodologikoak maiz erabiliak dira: izurrien ugaritasun balioak feromona tranpen bidez; saguzarren aktibitatea ultrasoinuen detektore bidez; eta izurrien kontsumoa saguzarren gorotzen DNA metabarcoding bidez. Hala eta guztiz ere, hurbilketa hauek ezartzen dituzten ikerlanek hainbat muga metodologikoei aurre egin behar izaten diete.

## Muga metodologikoak eta saguzar-izurri ikerlanen diseinurako ondorioak

Maila espazio-tenporal batean egiten diren izurri eta saguzarren ikerlanetan ikerlariek erronka ugari aurki ditzakete eta ezinbestean, hainbat erabaki kritiko hartu behar izaten dituzte (1. irudia). Hauek behar bezala ezagutzea eta identifikatzea guztiz beharrezkoa da ikerketen metodologiak eta diseinua optimizatze aldera.

### Intsektuen monitorizazioa

Izurri diren intsektuen sakabanaketa eta gorabeheren dinamikak ezagutzea interes handia duen gaia da, ez bakarrik intsektuen jokamolde eta ekologiaz antzemateko, baita harrapakinak ugari diren eskualdeak eta garaiak identifikatzeko ere, adibidez izurrien eta harrapakari potentzialen artean egon daitezkeen harremanak analizatzeko. Oro har, Intsektu-izurrien populazioen jarraipena feromona-tranpa edo argi ultramoredun tranpen bitartez egiten da (adibidez, de Torrez eta kideak, 2019). Lehenak, nahiz eta emeak bakarrik harrapatzen dituen, merkeak dira, espeziekiko espezifikoak, eta ia ez dute esku-hartzerik, ez mantenu-esfortzurik

eskatzen eta beraz, epe-luzeko intsektuen monitorizazioa pasiboki egitea baimentzen dute; bigarrenek ordea, interesekoak izan ez daitezkeen beste hainbat espezie erakartzen dituzte, etengabe energiaz hornitzea eskatzen dute eta intsektuez betetzeko joera dute tranpak noizean behin berrikusiz gero (Hegazi eta Khafagi, 2005; Neethirajan eta kideak, 2007). Gure ikerketan, mahats-izurrien zenbaketak korrelazionatuta egon ziren saguzarren aktibitate eta espezie batzuen izurrien dietan zuten agerpen maiztasunarekin, nolabait iradokiz erabilitako tranpa kopuruek *S. pilleriana* eta *L. botrana*-ren eskuragarritasun balioak modu fidagarrian islatzen dituztela. Hala ere, beste sits-espezieekin lan egin zuten beste ikerketa batzuetan feromona-tranpen erabilera ez zen nahikoa izan intsektuen populazioak modu zehatzean estimatzeko (Krauel eta kideak, 2018; de Torrez eta kideak, 2019). Erabilitako monitorizazio-teknika edozein dela ere, xede den espeziearen gaineko sakabanaketa espazialaren informazioa ezagutzea ezinbestekoa da ikerketaren diseinurako (1. irudia). Hiru sakabanaketa-patroi definitu daitezke (Krebs, 1999): zorizko-sakabanaketa, populazioa osatzen duten indibiduoek espazioko edozein lekutan egoteko probabilitate berdina dutenean; sakabanaketa uniformea, populazioaren barneko konpetentzia bortitzak bultzatuta indibiduoak modu uniformean barreiatzen direnean eta multzokatze-sakabanaketa, populazioaren indibiduoek leku edo eremu konkretuetan elkartzeko joera dutenean. Azken hau, intsektu-izurrien artean ohikoa izaten da (Taylor eta kideak, 1978; Liebhold eta kideak, 2013; Sciarreta eta Trematerra, 2014), izan ere, hauek joera izaten dute baldintza biotiko eta abiotikoak egokiagoak diren txokoetan biltzeko. Alabaina, multzokatzeko joera izaten duten populazioetan aldakortasun-espazial handiagoa egoten da, eta populazioen tamainaren estimek zehaztasun maila baxuagoa izaten dute. Ondorioz, laginketa-esfortzu handiagoa (adibidez, tranpa gehiago erabiltzea) behar izaten da zehaztun maila jakin batean populazioaren tamaina kalkulatzeko. Gure kasuan, ez genuen izurri-populazioen gaineko sakabanaketaren inolako aurretiko informaziorik eta beraz, izurri-populazioen estimazioak ez ziren uste bezain zehatzak izan. Ondorioz, zailtasunak izan genituen saguzar eta izurri-populazioen arteko elkarrekintza trofikoen inguruko modelo sendoak eraikitzeko. Hori horrela, ikergai diren izurri-populazioen dinamiken gaineko ikerketa pilotuak egitea ezinbestekoa da, laginketa esfortzua modu egokian doitu eta aldakortasun-espaziala gutxitzeko.

# Saguzarren monitorizazioa

## 1. Monitorizazio akustikoa

Saguzar aktibitatearen detekzio akustikoa eta monitorizazioa alborapenaz eta erronkaz beteriko gaia da (ikusi Walters eta kideak, 2013), besteak beste, lan-kostuekin edota espezieen detekzioarekin eta identifikazioarekin lotuak.

### 1.1. Kostuak

Gurea bezalako espazialki egituratutako epe luzeko monitorizazio programek detektore automatiko ugari aldi berean eta eremu ezberdinetan erabiltzea eskatzen dute, baina historikoki, monitorizazio programa hauen kostu altuak muga garrantzitsua bilakatu izan dira. Hainbat detektore erosteko, kudeatzeko, jarraipena egin eta grabazioen datu sortak prozesatzeko beharrezkoa den aurrekontua handiegia izaten da ikerketa askorentzako. Bereziki, aipatutako muga hauek gure ikerketaren diseinua kilometro gutxi batzuetako eskualde batean burutzera murriztu zuten eta beraz, harrapakari-harrapakinen arteko elkarrekintzen ikerketak eskala espazio-tenporal zabalagoetan gauzatzea zail samarra izaten da. Berriki merkaturatutako kostu-baxuko detektoreek saguzarren monitorizazioa eskala handiagotan burutzea ahalbidetzen dute, baina laginketa esfortzua emendatzeak, mantenu eta prozesatze kostuen (adibidez, datuen analisia) gorakada esanguratsua ere suposatzen du (Hill eta kideak, 2018).

### 1.2. Detekzio-probabilitatea

Ultrasoinuen detektore bidezko saguzar-espezie ezberdinen detekzio-probabilitatea espezie bakoitzak duen ekokokapen-deien ezaugarrien araberakoa da (Jones eta Teeling, 2006; Meyer eta kideak, 2011). Saguzarrek igortzen dituzten deien frekuentziak, intentsitateak eta norabideak eragin zuzena dute detekzio-probabilitatean. Horrela, energia handiko, transmisio zabaleko edo tonu baxuko deiak detektatzea samurragoa den bitartean, frekuentzia altuko, intentsitate baxuko edo norabidezkoak diren deiak oharkabean joateko arrisku handiagoa dute

(Schnitzler eta Kalko 2001; Walters eta kideak, 2013). Zentzu honetan, espazio irekietan ehizatzen diren saguzarrek edo landarediaren gainetik habitaten ertzetan ehizatzen direnek frekuentzia baxuko edo ertaineko, transmisio zabaleko eta intentsitate altuko deiak igortzen dituzte eta beraz, aski ondo detektatu eta monitorizatu daitezke. Aitzitik, espazio itxietan ehizatzen diren saguzarrak detektatzea erronka handiagoa izan ohi da norabide altuko, intentsitate baxuko edo frekuentzia altuko deiak igortzen dituztelako. Gure Ikerketan, akustikoki grabatutako 17 saguzar espezietatik (2. kapitulua), lauk baino ez zituzten nahiko grabazio eduki analisi estatistikoetan barneratzeko. Hauetako batzuk, besteak beste, *B. barbastellus*, *Myotis* eta *Plecotus* generoko espezieak edo rhinolofidoak (*Rhinolophus* spp.) detektorez detektatzeko zailak dira duten ekokokapen sistemagatik, eta ondorioz, ohikoa izaten da beraien aktibitate-tasa gutxiestea. Adibide gisa, gure ikerketa-eremuan *R. hipposideros* maiz ehizan ibiltzen den espezie arrunta da, bertako gordelekuen okupatze datuek eta dieta-analisiek azaldu bezala; detektoreen bidez ordea, oso gutxitan detektatu genuen. Bereizketa argi honek agerian uzten du gaur egungo monitorizazio sistemek dituzten alborapen eta muga akustikoak aitortzearen garrantzia eta beharra. Horrez gain, errazen detektatu genituen saguzarrak kezka-txikiko kontserbazio-egoeran aurkitzen dira eta beraz, ezinezkoa zitzaigun ikertutako mahasti-sistema saguzarren kontserbazioaren ikuspuntutik baloratzea. Tamalez, espezie iheskor horiek ebaluatzeko egin beharreko laginketa-esfortzua kasik ezinezkoa litzateke. Hau kontuan izanik, mota hauetako ikerketek funtsean muga handiak dituztela onartu beharra daukagu, eta litekeena dela saguzar-espezie orokorrenekin eta akustikoki detektagarritasun handiagoa dutenekin bakarrik lan egin ahal izatea.

## 1.3. Identifikazioa

Saguzarren identifikazioa erronka handia izan daiteke igortzen dituzten deien aldakortasun intraespezifiko eta antzekotasun interespezifiko handiak direla eta. Europan adibidez, saguzar deien gida oso garatuak egonda ere, eta espezieen dibertsitatea oso altua ez den arren (Russo eta Jones, 2002; Russ, 2012; Barataud, 2015), zailtasun handiak daude saguzar-espezie batzuk identifikatzerako orduan.

Espezie ezberdinek deien estruktura, itxura eta antzeko frekuentzia tarteak partekatzen dituzte eta horrek zaildu egiten du saguzar askoren arteko bereizketa (Preatoni eta kideak, 2005). Horren eraginez, ikerketan zehar grabatutako deien portzentaje esanguratsu bat ezin izan zen espezie-mailan identifikatu, genero edo sonotipo mailan baizik, eta horrek ere, espezie ezberdinen detektagarritasun mugak bezala, areagotu zituen lagin tamainarekin sortutako kezkak.

Azken urteotan ordea, saguzarren jarraipena hobetzeko aurrerapausoak eman dira. Besteak beste, saguzar deien identifikazio automatikoan oinarritutako hainbat ***software*** hobetu dituzte, aurretik kontuan hartu izan ez ziren aldagai anitz barneratuz eta saguzar-espezie gehiagoren deien lista emendatuz (Russo eta Voigt, 2016). **Identifikatzaile automatiko** hauek duten abantaila nagusia da identifikazio estandarizatuak eta objektiboak eskaintzen dituztela (Rydell eta kideak, 2017) eta, eskuzko identifikazioarekin konparatuz, askoz denbora gutxiago inbertitzea eskatzen dute, batez ere datuak epe-luzean zehar bildu badira. Halarik ere, hurbilketa hauek oraindik ez dira gai zalantza gabeko espezieen sailkapena egiteko dei ezberdinen ezaugarriak gainjartzen direlako, eta hortaz, eztabaida sortu da ***software*** hauen erabilera hutsak ekar ditzakeen identifikazio-akatsen arriskuen inguruan. Honek ondorio larriak ekar ditzake harrapakari-harrapakinen arteko elkarrekintzak saguzar komunitatearen baitan zehazterako orduan, ikerketa ekologiko asko identifikatzeko errazak diren saguzarrekiko guztiz alboratuak daudelarik. Egoera honen aurrean, zuhurtasunez jokatzea eta identifikazioak norberak egitea edota modu automatikoan eginez gero, deiak behar bezala berrikustea gomendatzen dugu. Azkenik, aipatu beharra dago espezieen aberastasuna altuagoa den heinean hauek bereizteko zailtasunak ere emendatuz doazela, dei ezberdinen ezaugarriak haien artean antzekoagoak baitira. Hala ere, badira identifikatzeko errazak eta ugariak diren zenbait taxon, adibidez *Pipistrellus* generoko espezieak modu fidagarrian sailkatu daitezke (Rydell eta kideak, 2017). Horrek identifikazio-denbora asko aurreztea suposa dezake, bereziki detekzio-esfortzu handia eskatzen duten ikerketetan.

## 2. Dietaren monitorizazioa

**Metabarcoding**-ean oinarritutako ikerketan jakintza-alor eta trebetasun anitz praktikan jarri ohi dira, besteak beste, landa eta ikerketa diseinuarekin lotutako ezagutza, biologia molekularra, bioinformatika eta estatistikarekin zerikusia dutenak (Zinger eta kideak, 2019). Laginen bilketatik, datuen analisira (1. irudia), prozesuan zehar hartu beharreko erabaki bakoitzean alborapena sor daiteke, eta hein handi batean ondorio ekologiko ez fidagarrietara eraman. Horregatik, erabaki bakoitza zuhurtziaz eta ikerketa prozesuan zehar egon daitezkeen distortsio-faktoreak minimizatuz hartzea ezinbestekoa da.

### 2.1. Gorotzen bilketa

Saguzar-espezie ezberdinek askotariko ohiturak dituzte babeslekuen edota ehiza-lekuen erabilerari dagokionez, eta beraz, kasu askotan erronka handia izan daiteke saguzar-talde zabal bateko gorotz-laginak eskuratzea. Saguzar-espezie batzuk eskuragarri dauden koba, mina, elizetako bobeda edo saguzar-kutxak bezalako babeslekuetan elkartzen diren bitartean, beste espezie asko iristeko zailak edo eskuraezinak diren lekuetan ezkutatzen dira, adibidez, zuhaitzetako zulo garaiak edota kobazulo sakonak eta estuak (ikusi Kunz eta kideak, 2003). Hala ere, ikerketa-eremuko saguzar-espezieen lista ezagutzea behar beharrezko baldintza da, lagin-bilketaren bideragarritasuna zehazten duelako eta baita lortu daitezkeen ondorioen osotasun-maila. Bada, saguzarren gorotz-bilketarako bi hurbilketa nagusi erabiltzen dira: saguzar kolonien azpian biltzaileak jarriz gorotz-laginen bilketa pasiboa eta ez inbaditzailea (adibidez, Bohmann eta kideak, 2011) edo sare bidezko harrapaketa aktiboa (adibidez, Garin eta kideak, 2019). Gorotzen bilketa pasiboa aukerarik egokiena da eskuragarri dauden babeslekuetako saguzarren laginak eskuratzeko. Kasu hauetan, lagin-multzo handi bat lortzea erraza izaten da eta animalien manipulazioa eta asaldura ekiditen dira, era berean, laginak epeluzera bildu ahal izateko probabilitatea emendatzen delarik (adibidez, eragindako asaldurengatik babeslekutik ihes egiteko arriskuak gutxitu). Dena den, ikerketa eremuan zehar dauden babeslekuen bilaketa trinkoa behar izaten da trukean. Espezie-anitzeko sistemetan, laginak biltzeko estrategia muga logistikoen (adibidez, babeslekuen eskuragarritasuna) eta espezieak izkutatzen diren babeslekuen

kokapenaren gaineko ezagutzaren araberakoa izango da. Babeslekuetatik jasotako laginen kopurua nahikoa ez den kasuetan, laginketa harrapaketen bidez osatu daiteke, nahiz eta estrategia honen bidez saguzarrak epe-luzean harrapatzea gero eta zailagoa izaten den, denboraren poderioz saguzarrek sareak ekiditen baitituzte. Gure ikerketan, babesleku eskuragarrietan soilik zauden saguzar-espezieen jarraipena egin ahal izan genuen, besteen artean, *R. hipposideros* gizakiek eratutako eraikinetan, *Pipistrellus* spp. saguzar-kutxa eta begi-bistako arrakaletan eta *M. daubentonii* arroketako zuloetan, baina aitortu beharra dago mahastietan aktibo izan ziren *T. teniotis* edo *H. savii* bezalako saguzarren ohitura trofikoen gaineko informazio oso baliagarria galdu genuela. Hau kontuan izanda, babesleku oso ezberdinetan izkutatzen diren saguzar-espezie anitzen gorotzekin diharduten ikerketek, adibidez bazka-gremio ezberdinetako saguzarrek izurri zehatz batekiko duten elkarrekintza trofikoa konparatzeko, edo saguzar espezie bakarrak denboran zehar dituen elikadura-ohiturak neurtzeko, hainbat mugei aurre egin behar izaten diete. Gainera, kasu askotan bildutako datuak desorekatuak egotea edo laginketa-esfortzua esanguratsuki emendatzea suposa dezakeelarik.

## 2.2. Laginen tratamendua: banatzea edo taldekatzea?

Laginak bildu ostean, hurrengo pausua laborategian hartu beharreko laginen tratamenduaren gaineko erabakiak finkatzea da: laginak **indibidualki** prozesatu, **gutxi batzuk bildu** edo laginak **multzo handitan** pilatu. Erabaki hauek saguzarren dietan detekta daitezkeen harrapakinen dibertsitatean eragina badute ere (Mata eta kideak, 2019; Andriollo eta kideak, 2019), ikerketa-eredu bakoitzak erabiltzen duen **lagin-unitatearen** araberakoa izan behar da ezinbestean: saguzar **indibiduoa** edo saguzar **kolonia**. Hori horrela, laginak indibiduoetatik batzen direnean, gorotzak indibidualki edo gutxi batzuk bilatuz prozesa daitezke, baina laginak kolonien babeslekuetatik biltzen direnean, indibiduoak bereiztea ezinezkoa da eta gorotzen multzoak dira prozesatu beharrekoak (adibidez, Andriollo eta kideak, 2019). Tesian zehar adibidez, saguzar-kolonia ugari lagindu genituen maila espazio-tenporalean zehar (guztira 439 lagin-multzoetatik eratorritako 10607 gorotz), eta beraz, kolonia osatzen zuten saguzarren aldakortasuna eta elikadura-ohiturak

osotasunean adierazteko beharrezkoa izan zen lagineko gorotz-kopuru esanguratsu bat erabiltzea. Horren ordez gorotzak bakanki analizatu izan bagenitu, indibiduo solteen dietaren gaineko ezagutza emendatuko litzateke, baina ordean, ez genuke saguzar koloniaren dieta behar bezala adieraziko.

## 2.3. Erreplikak

Metabarcoding bidez egindako dieta lanetan, erreplikek, biologiko zein teknikoek, eragina handia izan dezakete dietan aurkitzen diren harrapakinen zerrendan (Mata eta kideak, 2019). Aurreko atalarekin lotuta, erreplikazio biologikoez ari garenean, lagin unitateko erabiltzen ditugun biologikoki ezberdinak diren azpi-laginei egiten diegu erreferentzia (adibidez, saguzar-kolonia baten dieta irudikatzeko erabiltzen diren gorotz-sorta unitateak), lagin unitate bakoitzak izan dezakeen heterogeneotasuna (adibidez, espaziala eta tenporala) kontuan hartzeko helburuz (Alberdi eta kideak, 2018). Bestalde, erreplika teknikoak lagin berdinaren neurketa errepikatuak dira (adibidez, lagin batentzako erabiltzen diren erauzketa edo PCR kopurua, Blainey eta kideak, 2014) eta prozesu hauetan zehar sortzen den estokastizitateari aurre egiteko erabili ohi dira (Alberdi eta kideak, 2018). Dena den, kontuan izanik lagin-unitate ezberdinen artean dagoen dietaren aldakortasuna lagin-unitatearen baitan egon daitekeena baino handiagoa dela (Mata eta kideak, 2019), erreplika biologikoek eragin handiagoa izaten dute erreplika teknikoen aldean. Horregatik, eta errepliken erabilerak suposatzen dituen lan-karga eta kostuen emendioa kontuan hartuta, erreplika teknikoei baino, lehentasuna eman beharko litzaioke erreplika biologikoen erabilerari.

## 2.4. Hasleen aukeraketa eta estrategia molekularra

Ingurumen-laginetatik eratorritako izurri-espezie ezberdinen DNA metodo espezifikoen bidez edo komunitate-mailako metodoen bidez detekta daiteke (adibidez, Varadínová eta kideak, 2015; Piggott, 2016; Harper eta kideak, 2018). Lehena, **hasle espezifikoen** eta PCR konbentzional (**cPCR**) edo PCR kuantitatiboaren (**qPCR**) erabileran oinarritzen da, jomuga diren espezieak **kualitatiboki** edo

**kuantitatiboki** ebaluatzeko (Deagle, 2005, 2007; Gosh eta kideak, 2018). Azkenak, hasle unibertsalak erabiltzen ditu komunitate osoak barneratuz, honen adibide da DNA metabarcoding. Bata edo bestea aukeratzea ikerketa galdera eta baliabide ekonomikoen araberakoa da. Adibidez, izurri espezie gutxi batzuk helburu diren kasuetan hurbilketa espezifikoen erabilera zentzukoagoa dirudi, baina horren ordez, esfortzu handiagoa egin behar da hasleen diseinuan eta balidazioan, eta baita anplifikazio protokoloen optimizazioan; bestalde, ikerketaren helburu nagusia baldin bada ekosistema, sare trofiko eta komunitatearen funtzionamenduaz jakitea, metabarcoding bezalako teknikak eskaintzen dituen emaitzek osotasun handiagoz erantzungo dio planteatzen diren galderei. Teknika bakoitzak dituen abantailak, mugak eta erabilerak eztabaidatzen dira jarraian 3. kapituluan lortutako emaitzetan oinarrituz (1.taula).

## - Metabarcoding

Metabarcoding-ek entsegu bakoitzean aldi berean ehundaka laginen prozesamendu eta sekuentziazioa ahalbidetzen du (Alberdi eta kideak, 2018). Hori dela eta, azken hamarkadan DNA metabarcoding-en erabilerak egundoko bultzada izan du harrapakari **polifagoen** dieta aztertzeko. Besteen artean, aparteko aukerak eskaintzen ditu **bazka-sareetan** ematen diren elkarrekintza trofikoen inguruan sakontzeko (Sow eta kideak, 2020). Halarik ere, sare trofikoen gainean informazio oso baliagarria eskaintzen duen arren, eztabaida honen testuinguruan esan beharra dago gabeziak ere badituela. Adibidez, harrapakin espezie konkretuak detektatu nahi direnean, metodologia honen zehaztasuna eta detekziorako sentikortasuna baxuak izan daitezke (Wood eta kideak, 2019). Gure ikerketaren emaitzek esaterako, aditzera eman zuten cPCR edo qPCR tekniken bidez positibo adierazitako laginen % 10 baino gehiago ez zirela metabarcoding bidez detektatu (Table S3.1). Hortaz, esan dezakegu espezie dibertsitatearen edo saguzar eta harrapakinen arteko elkarrekintzen inguruko ekologia hobeto ulertu nahi badugu edo baita izurrien kontsumoan eragiten duten faktoreak (adibidez, beste harrapakin potentzialekiko zaletasuna) ezagutu nahi baditugu, metabarcoding da teknika egokia.

Metabarcoding-en testuinguru honetan, **hasleen hautaketak** eragin esangarria du bukaeran lortzen den espezieen zerrendan eta beraz, hainbat faktore arretaz kontuan hartu behar dira hasleekin lotutako alborapenak gutxitu eta kasu bakoitzean hasle egokienak aukeratzeko:

- **Eskualde markatzailea:** lehen pausua helburu diren taxonak barneratzen dituen eskualde markatzailea erabakitzea izan behar da. Oro har, c zitokromo oxidasa I azpi-unitatea (**COI**) maiz erabiltzen den gene eskualdea da, izan ere DNA sekuentzien online datu-baseetan (adibidez, BOLD systems eta Genbank) artropodoen liburutegi zabala dago eskuragarri. Beste gene batzuk ere (adibidez, 16S edo 18S) erabili ohi dira, baina hauen kasuan, datu-baseak ez dira horren hedatsuak eta sekuentzia asko ezin izaten dira espezie mailaraino identifikatu (Alberdi eta kideak, 2017; Giebner eta kideak, 2020).

- **Anplikoi luzera:** gorotzetan DNA zatiak oso degradatuak egoten dira eta luzera handiko anplikoiak (>200 bp) detektatzea arraroa izaten da. Baina alderantziz, anplikoi oso laburrek (<100 bp) espezifikotasun arazoak sortzen dituzte (Meusnier eta kideak, 2008) eta ondorioz, espezie mailako harrapakinen identifikazioa zaila izaten da. Hori dela eta, gure gomendioa da **100-200 bp-ko** luzerako anplikoia anplifikatzen dituen hasleak erabiltzea, ikerketa gehienetan egin ohi den bezala.

- **Dibertsitate taxonomikoa:** ikerketaren helburuen arabera, taxonomikoki **tarte zabaleko** edo **tarte estukoak** diren hasleak interesa dakizkiguke. Lehenak taxon ugari anplifikatzeko gai dira eta beraz, aproposak izaten dira harrapakin dibertsitate handia detektatzea xede duten dieta lanetan. Gainera, laginak saguzarren babeslekuetatik biltzen diren kasuetan, bereziki garrantzitsua izaten da harrapakin-espeziea identifikatzea, izan ere intereseko laginak beste saguzar espezieen gorotzekin kutsatuak egon daitezke (Forin-Wiart eta kideak, 2018). Taxonomikoki tarte estukoak diren hasleek ordea, talde taxonomiko jakinekiko afinitate altuagoa izaten dute (adibidez, Lepidoptera eta Diptera, Zeale eta kideak, 2011). Markatzaile molekular hauek bereziki mesedegarriak dira dietan taxon espezifikoak detektatu nahi badira, esaterako saguzarrek kontsumitutako izurrite diren lepidopteroak edo eltxo espezieak. Modu honetan ere, interesekoak ez diren eta dietan ohikoak izan daitezkeen DNA sekuentziak hasleekin lotzeko

konpetentzia ekiditen dugu. Ondorioz, interesekoak diren espezieen detektagarritasuna emendatzen da (Harper eta kideak, 2018).

- **Hasle kopurua:** hasle ezberdinen konbinazioari esker interesekoa den zatia anplifikatzeko aukerak emendatzeaz gain (Zhang eta kideak, 2018), harrapakin dibertsitate altuko harrapakarien dietak zehatzago irudikatu daitezke (Esnaola eta kideak, 2018). Hala ere, hasle bat baino gehiago erabiltzeak suposatzen duen kostuen igoera dela eta, etorkizuneko ikerketek hasle bakar efizienteen erabilera kontuan hartuko beharko lukete, hau da harrapakinak, zein harrapakarien sekuentziak anplifikatzeko gai direnak hain zuzen (Tournayre eta kideak, 2020).

Testuinguruz aldatuz, metodo espezifikoen alorrean, hasle eta zunda espezifikoen eta PCR metodoen (cPCR or qPCR) konbinazioa, saguzarren gorotzetan interesekoak diren espezieen jarraipena egiteko alternatiba fidagarri, arina eta merkea da, 3. kapituluan adierazi bezala.

- cPCR

cPCR-ko emaitzek (3. kapitulua) erakutsi zuten metodoak % 80-ko eraginkortasuna duela, beti ere lagineko hiru erreplika erabiltzen badira. Modu berean, erreplika-esfortzuaren emendioaren ondorioz, *T. pityocampa*-ren detektagarritasuna ere emendatzen da, 3. irudian (3. kapitulua) adierazi bezala. Teknika hau onuragarria izan daiteke ikerketa pilotuetan erabiltzeko, besteak beste, haragoko analisietara jo aurreko lehen pausu bezala. Horrez gain, kudeaketaren ikuspuntutik, izurri-espezieak saguzar gorotzen bitartez garaiz detektatzeko ere baliagarria izan daiteke (Maslo eta kideak, 2017), izurrien populazioak baso eta nekazal landaketetan finkatu eta zabaldu baino lehenago beharrezko neurriak hartu eta kalteak murrizteko. Azkenik, metodo honen abantaila nagusietako bat bere prezio baxuan datza (0,17€/erreplika, Purcell eta kideak, 2016), batez ere qPCR (1,50€/erreplika, Purcell eta kideak., 2016) eta metabarcoding (5,30-8,60€/lagina, Behrens-Chapui eta kideak, 2021) teknikekin konparatuz gero, eta hortaz, ia edozein ikerketak ordain dezakeena. Dena dela, metodoaren sentikortasuna dela eta, ez dugu gomendatzen izurrien jarraipen zehatza behar den ikerketetan erabiltzea.

- qPCR

3. kapituluan *T. pityocampa* izurriarekin erakutsi bezala, qPCR-ak saguzarren dietan agertzen diren intereseko harrapakin espezieak maila kualitatiboan eta kuantitatiboan aztertzeko ahalmena du. Esan dezakegu beraz, metodo honek erabilera bikoitza duela; batetik, dietan harrapakinen presentzia-ausentziak egiaztatzeko erabil daiteke, baina baita saguzarrek kontsumitutako intereseko espezieen biomasa kalkulatzeko hurbilketa orokor gisa. Horrez gain, metodo honek % 90eko detekzio ratioa erakutsi zuen erreplika bakarra erabilita eta beraz, kostuak gutxitzeko aukera ere ematen du, emaitzen fidagarritasuna maila onargarri batean mantenduz. Hala eta guztiz ere, kuantifikazioari begira, lagineko hiru erreplika erabiltzea beharrezkoa da errepliken arteko aldakortasunak duen eragina gutxitu, eta emaitzen sinesgarritasuna bermatzeko.

**2. taula.** Ikerketan erabilitako teknika molekularren abantailak, mugak eta erabilerak.

| Teknika | Abantailak | Mugak | Erabilera |
|---|---|---|---|
| Metabarcoding | -Dietako harrapakinen ikuspegi zabala.<br>-Dietaren inguruko aurretiko ezagutza ez da behar.<br>-Entseguko hainbat lagin analizatzeko aukera (≈384).<br>-Jada diseinatuta egoten diren hasle unibertsalen erabilera. | -qPCR baino sentikortasun maila baxuagoa espezie bakarraren detekziorako.<br>-Organismoen sekuentziak erreferentziazko datu-baseetan egon behar dira.<br>-Prozedura garestia (5,30-8,60€/lagina).<br>-Lan-zama handia eskatzen du (liburutegiaren prestaketa, sekuentziazioa, bioinformatika) | -Dibertsitate altuko dieta lanak<br>-Sare-trofiko konplexuak |

**2. taula.** (jarraipena)

| Teknika | Abantailak | Mugak | Erabilera |
|---|---|---|---|
| cPCR | -Espezifikoa.<br>-Prozedura merkea (0,17€/erreplika). | -PCR osteko prozedurak (denbora eskatzen du, kutsadura gertatzeko aukera).<br>-Sentikortasun baxua.<br>-Hiru erreplika, gutxienez.<br>-Kualitatiboa (presentzia-ausentzia)<br>-Intereseko izurriaren hasle espezifikoen diseinua ez da beti posible izaten. | -Ikerketa pilotuak:<br>analisi sakonetara jo aurreko lehen pausu bezala.<br>-Dietan intereseko espeziearen ikuspegi orokorra prezio baxuan. |
| qPCR | -Espezifikotasun eta sentikortasun altuak.<br>-Analisi azkarra (PCR osteko prozedurarik ez).<br>-Kualitatiboa eta kuantitatiboa<br>-Hainbat lagin analizatzeko aukera (≈3 erreplikadun 120 lagin, 384ko PCR plakan ). | -Prozedura erlatiboki garestia (1,50€/erreplika)<br>-Intereseko izurriaren hasle eta zunda espezifikoen diseinua ez da beti posible izaten. | -Harrapakin zehatzekiko harrapakaritza-maila erlatiboa. |

## 2.5 Erabaki bioinformatikoak - Akatsak ezabatzea eta identifikaziorako irizpide taxonomikoak

DNA-ren sekuentziazioan oinarritutako dieta analisietan prozedura ugari egin behar izaten dira. Prozesuan zehar, ehundaka lagin paraleloan analizatzen dira, laginketetatik hasita, laborategiko lana (DNA erauzketa, anplifikazioa, liburutegiaren prestaketa eta sekuentziazioa) eta pausu bioinformatikoak burutzera, eta horrek, akatsak eta kutsadura sortzeko aukerak emendatzen ditu. Hori horrela, erauzketa, anplifikazio eta liburutegiaren prestaketari dagozkien protokoloetako bakoitzean kontrol negatiboak gehitzea, eta ondoren gainerako laginekin batera sekuentziatzea guztiz gomendagarria da. Kontrol negatiboek

kutsadura egon den aztertzea baimentzen dute eta ondorioz, sekuentzia horiek analisitik baztertzeko aukera ematen digute positibo faltsuak ekiditeko (Aizpurua eta kideak, 2018; Alberdi eta kideak, 2018). Sekuentziazioaren ostean beraz, jasotako datuekin zelan jokatu erabaki behar dugu: kontrol negatiboetan agertzen diren sekuentziak gainerako laginetatik ezabatu (negatibo faltsuak emendatu) edo sekuentzia horiek mantendu ustezko informazio baliagarri hori ez galtzeko (positibo faltsuak emendatu). Orokorrean, negatibo faltsuak gutxitzea baino, lehentasuna eman ohi zaio positibo faltsuak murrizteari, hain zuzen ere taxon baten ausentziak (negatibo faltsua) ez duelako ziurtatzen espeziea hor ez dagoenik, baina akatsez taxon bat dagoela esatea (positibo faltsua) askoz larriagoa izan daiteke. Kasu gehienetan, kontrol negatiboek erraztasun handiagoarekin kutsatzen dira ugariak eta arruntak diren taxonen DNA-rekin, batik bat laginetan dagoen DNA totalaren proportzio handi bat betetzen dutelako (Jensen eta kideak, 2015), besteak beste, harrapakariaren edo saguzarrek gehien kontsumitutako harrapakinen DNA. Sekuentzia horiek kendu edo mantentzearen erabakia ikerketaren helburuen edo interesen araberakoa da, baina saguzar-izurrien testuinguruan bi hurbilketa proposatuko nituzke: batetik, edozein erabaki hartu baino lehen kontroletan agertzen diren taxonen identifikazioa burutu eta bestetik, gorago aipatu bezala, estrategia kontserbakorrago bat jarraitu eta kontroletan agertzen diren sekuentziak gainerako laginetatik ezabatu. Sentsu berean, ZOTU/OTU-en identifikazio prozesuan erabilitako irizpideek dietan agertzen diren espezieen zerrenda baldintzatzen dute (ikusi Alberdi eta kideak., 2017). Egun arte ordea, oraindik ere ez dago adostasunik espezieen identifikaziorako erabili beharreko hurbilketa eta sekuentzien antzekotasun-atarien inguruan, kasu askotan modu arbitrarioan ezartzen direlarik (Ando eta kideak, 2020): antzekotasun-atari ahuletatik (Kolkert eta kideak, 2020, espezie maila % 97-tik gorako antzekotasuna eta e-balioa $<1^{e-20}$), zorrotzetara (Wray eta kideak, 2018, espezie maila % 99-tik gorako antzekotasuna). Antzekotasun-atari ahulen erabilerak, lortutako sekuentziak modu ezegokian identifikatzeko aukerak emendatzen dituen bitartean, antzekotasun-atari oso hertsietan oinarritzeak zailtasunak ekar ditzake ZOTU/OTU-en espezie-mailako identifikazioa burutzerako orduan. Kontuan izanik positibo faltsuak ekiditeari lehentasuna eman behar diogula eta **saguzar-izurri elkarrekintzen** ikerketen fidagarritasuna eta

erreplikagarritasuna bermatze aldera, beharrezkoa da izurrien identifikaziorako sistemak estandarizatzea antzekotasun-atari hertsiak erabiliz.

## Menpekotasun estatistikoa

Saguzarrek izurri populazioetan harrapakaritza-presioa ezartzen dutela argi dago, baina presio hori aldakorra izan daiteke momentu eta espazioaren arabera (Krauel eta kideak, 2018; Baroja eta kideak, 2019). Mota honetako saguzar-izurrien arteko elkarrekintzak maila espazio-tenporal batean modelizatzeak zailtasun-metodologikoak eduki ditzake, adibidez denbora eta/edo espaziorekiko menpekotasuna duten datuei aurre egin behar izatea (Zuur eta kideak, 2017). Gaur egun **R programak** sakabanaketa normaleko datuen **korrelazio tenporal eta espazialari** aurre egiteko erreminta ugari eskaintzen dituen arren, ikerketa ekologikoetan sakabanaketa normala ez duten datuen (adibidez, binomialak edo zenbaketak) nagusitasuna erabatekoa da. Sakabanaketa ez-normalaren testuinguruan, korrelazio horiei aurre egiteko eskuragarri dauden pakete eta erreminta konputazionalak nahiko mugatuak dira [baina ikusi *MASS* (Ripley eta kideak, 2013) eta *lme4* (Bates eta kideak, 2018) paketeek eskainitako *glmmPQL* eta *GLMM* funtzioak].

Tesian zehar, modelo mistoentzako era askotako baliabide, sakabanaketa, modeloen egitura eta tresna konputazionalak erabili genituen R-n, baina hauetako inork lortu zuen 2. kapituluko datuen **menpekotasun espazio-tenporalari** jarkitzea. Egoera honen aurrean, harrapakari eta harrapakinen elkarrekintzen gaineko ikerketa askok aldagai espazio-tenporalak **ausazko efektu** gisa barneratzen dituzte korrelazioei aurre egiteko. Hauen erabilera ordea, **ez da batere gomendagarria**, lortutako modeloen parametroek eta p-balioek alborapena erakusten baitute (Zuur eta kideak, 2017), eta horrek ondorio ekologiko desegokietara eraman gaitzake (Carroll eta Pearson, 2000). Hori dela eta, praktika hau baztertu genuen. Azkenean, **hurbilketa Bayesiar** bat erabiltzea erabaki genuen (Rue eta kideak, 2009). Ikuspegi "**frekuentistarekin**" alderatuta, ikuspegi Bayesiarrean ez dago parametroen balio finkorik, eta horren ordez, modeloen parametroen probabilitateak kalkulatzen dira gure datuetan oinarrituz (Box eta Tiao, 2011), edo beste modu batera esanda, proposatutako hipotesiarekiko

probabilitatea kalkulatzen da. Ikuspuntu teoriko batetik, emaitzen interpretazioa zertxobait ezberdina da, baina ikuspuntu praktiko batetik, hurbilketa honek eskaintzen dituen abantailak anitzak dira. Besteen artean, azken urteotako aurrerapen konputazionalak, adibidez *R-INLA software*-aren garapena (Bakka eta kideak, 2018), oso eraginkorrak bilakatu dira modu erraz batean korrelazio tenporalari eta espazialari aurre egiteko eskaintzen dituzten tresna konputazional ugariei esker.




**1. Irudia.** Saguzar eta izurrien arteko elkarrekintzak maila espazio-tenporalean aztertzeko diseinatutako ikerketetan aurki daitezkeen zailtasun eta erabakien eskema.

## Aukerak eta etorkizuneko erronkak

Tesian zehar konturatu naiz zer nolako erronka handia izan daitekeen maila espazio-tenporal ezberdinetan saguzar eta intsektuekin erlazionatutako ikerketa ekologikoek dakartzaten konplexutasunei aurre egitea. Hau idaztearen helburua ordea, ez da gainerako ikerlariak saguzar eta izurrien arteko elkarrekintzak aztertzearen zailtasunak aipatuz gogogabetzea, horren ordez, helburua da hasiberritan ari diren ikerlariak bultzatzea eta komunitate zientifikoa nolabait bideratzea prozesuan zehar erabaki egokiak har daitezen. Azken urteotako aurrerapen analitiko eta molekularrek erakusten dute  badagoela oraindik ere muga hauei aurre egiteko hurbilketa eta metodologia berrientzako tartea. Ordura arte ostera, ziurtatu beharko dugu muga metodologiko hauek kontuan hartzen ditugula ondorio ezegokiak ekiditeko.

# 5. Kapitulua

# Ondorioak

## Ondorioak

Tesi honek saguzar intsektiboroek izurrien kontsumitzailetzat eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemikoak hobeto ulertzeko ezagutza handitu du. Honako hauek dira ondorio nagusiak:

1. *R. hipposideros* garrantzia handiko izurri-espezie ugariz baliatzen da, adibidez mahatsaren hazkuntza-garaian *Lobesia botrana*, *Sparganothis pilleriana*, *Ephestia parasitella, Peridroma saucia* edo *Spodoptera exigua* izurriak kontsumitzen ditu, saguzar espezie honek potentzialki eskaintzen dituen zerbitzu ekosistemikoak agerian geratzen direlarik. Ondorioz, espezieak kultiboen produkzioan eduki ditzakeen onurak direla eta, saguzar-espeziea izurrien kudeaketarako plangintzen barruan kontuan hartu beharko litzateke.

2. Metabarcoding testuinguruan, izurri potentzialen detektagarritasuna hasleen araberakoa da, hein handi batean. Zenbait **izurri** "***Gillet***" hasleekin detektatu ziren soilik, eta beste hainbat ordea, "***Zeale***" hasleekin. Hasle osagarriak konbinatzea beraz, funtsezkoa da harrapakarien dieta osotasunean deskribatzeko.

3. *R. hipposideros*-en dieta-ohiturak denboran zehar aldatzen dira. Hau kontuan izanik, saguzarren izurriak kontsumitzeko ahalmena aztertzeko laginketak hainbat aldietan zehar burutzea gomendatzen dugu.

4. *L. botrana*-k eta *S. pilleriana*-k multzokatzeko joera dute. Ikerketa eremuan batez ere hego-ekialdean aurkitu ziren izurrien ugaritasun balio altuenak. Feromona tranpen detektagarritasun-tarte baxuak eta izurri populazioen heterogeneotasun espazialak agerian uzten du monitorizazio-esfortzua emendatzeko beharra.

